

# **KOLDO MITXELENAREN EKARPENA SOZIOLINGUISTIKAREN ARLOAN - (I)**

Jose Manuel Odriozola

---

---

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos  
Año 40. Tomo XXXVII. N.º 2 (1992), p. 393-420  
ISSN 0212-7016  
Donostia: Eusko Ikaskuntza

## Hitzaurrea

Bere obraren pisua alde batera makurturik dagoelako, hizkuntzalaritzaren aldera, hitz batean esateko, ez da behar bezainbat nabarmendu Koldo Mitxelenaren beste alde bat. Koldo, izan ere, gauza asko izan da: hizkuntzalari zorrotzaz aparte, filologi lanetan ihardun izan du, baita literatur kritikan ere, zinema kritika eta beste ezin konta ahala arlo ez aipatzeko. 1987 ko EGAN (3-6) ale berezian bere obraren zabaltasuna argi ageri da: "Mitxelena euskal gramatikari" gisa aztertzen duen lanetik "Koldo Mitxelenaren ekarria euskararen batasun bidean" laneraino, eta horiez at bada besterik ere, bere ekarpen zabalaren baratz agortezina begien bistan dago. Halaz guztiz, zerbait falta delakoan nago. Ez dakit besterik faltako den, baina, horratik, bere obran barrena aztergai izan duen gai inportante bat ez da ageri baratz horren lekuko izan nahi duen liburu horretan. Agertu izan balitz, honelako errotuloren baten pean ager zitekeen: "Mitxelenaren ekarpena soziolinguistikaren arloan", edo zer dakit nik.

Hizkuntza eta gizartearen arteko harreman korapilotsu eta inoiz istilitsu eta gatazkatsu horietatik kanpo bizi izan dela norbaitek uste izan badu, bere erantzuna zai zeukan: "(...) Baina nik hori ez dut sekula ahaztu. Agian zuk esaten baldin badidazu ni izan naizela teoriko hutsa eta ez naizela sekula kezkatu holako edo halako herriri zer gertatzen zaion bere hizkuntzarekin, hori ez da hola. Hori ez da hola. Ni hemengo edozein adina, gutxienez, kezkatu naiz kontu hauetaz. Beste norbaitek gehiago dela uste badu erakuts dezala. Nik ez dut hori sekula baztertu eta ez dut orain bazterten".

Koldo hizkuntzen historialaria ere zen aldetik, beraien joan-etorriez inor gutxik eduki zezakeen lehen eskuko informazioa zeukan. Indoeuropear hizkuntz uholdearen berri ematek hasita, latinizazioaren ezkutu-sakon xehean agertzen dizkizu, erromantzeen garaipena eta euskararen gainbehera burutu direneko prozesu historikoaren ikuspegi oso eta biribildu bat hontzeraino. Txundigarria da alde horretatik bederen bere ikuspegiaren zabalera; zabalera ez ezik, bere iradokizun eta zentzu kritiko zorrotzak liluraturik uzten du gai horietan jakinmin ez dabilen edonor.

Ezin zen, beraz, soziolinguistikaren inguruan, gai honi alde edo moldez dagokion hainbeste argibide bere obra zabalean sakabanaturik eta barreiatu utzi. Asmo horrek eragin du lan hau: sakabanatua zegoena bildu eta ordenatu, halako eskema jakin bati jarraituaz. Ez dakigu zer neurritan asmatu den: gureak baino esku hobeagotan egin izan balitz lan hau, gurea baino aparatu kritiko eta teoriko joriagoaz, Mitxelenaren ekarpen sakona hobeki nabarmenduko zen agian. Baina, behiala idatzi zuen bezala, afizionatuon ekoizpena ere beharrezkoa omen da, eta aitzaki horren estalpean zuritu beharko geure burua.

Ez ditugu, nolana ere, errenteriarrok arlo honetan idatzi eta esan dituen gauza guztiak jaso. Esaterako, prentsa eta aldizkarietako zenbait idazlan polemiko ez dira kontuan

hartu. Hori horrela egitearekin behar bada ez dugu asmatu. Halere, ulertzekoa dela dirudi sesio eta tiraduraz jositako egokieratan hondutako lanen izakera ideologikoa ez dela gehien behar dugun jardunbidea. Haatik, ezin pentsa dezakegu, inozokeria hutsa litzateke eta, testu teoriko hutsen aurrez aurre gaudenik. Ez, hori ere ez. Alde batetik, hobe zen seguruenik, ahal izanez gero bederen, testu horien arteko mugarriztapen zorrotz batez, batzuk eta besteak bereiztea eta alderatzea. Gu ez gara, ordea, horretarako gauza. Bestetik, alabaina, testu mota guztiak bere osotasunean uztarturik ager erazteak, Mitxelenaren osotasun irudia hobeki zaintzen due-lakoan gaude. Bego dagoenean, biltzaile hoberik etorriko denaren itxaropenez.

### Soziolinguistika: bere ahal-ezinen mugarriak

Hasi, haseratik hasi behar denez, bestetara baino lehen, ikus dezagun nola zehazten duen Mitxelenak soziolinguistikaren egitekoa. Zer duen alegia aztergai eta azalpide.

“... nik Parisen urtebetez erakutsi dut soziolinguistika, beraz, orain ez didazue erakutsiko zer den soziolinguistika. (...) nik esango nizuke soziopolitika soziolinguistikaren adarra edo dela, ala ez. Hori da jakin nahi nukeena. Nik hala ikusten dut. Soziolinguistikak aztertu behar baldin badu zer hartueman dagoen hizkuntza eta gizar-tearen artean, bada, gizar-tearen indarren artean noski indar politikoak daude eta horiek hor sartzen dira zuzen zuzenean. Nik ez dut hori sekula ukatu e”. (1987a, 30. orr.).

Erreteriarren ustez, barruti honetan kokatzen diren auziak ezin dira hizkuntzalaritza soilaren ikuspegitik arakatu. *Status* plangintzari darizkion auzi linguistikoetan eskuhartu behar luke, beraz, disziplina jaioberri honek.

“Berrito ere Lévi-Straus aipatzen dut: «Lengoaia ez dagokio bakarrik gizonaren mui-nari; hizkuntza jakin batek funtsezko zerikusia du gizatalde jakin baten izaera irau-tearekin». Beraz, hauzi hau linguistika hutsa gainezkatuz soziologiaren alorrean sartzen da”. (1972, 153 orr.).

Pariseko ikasturtearen amaierak atarramendu onik ez zuela izan jakin erazi ondoren, ez du, haatik, gureganatu berria den teoriaren emaitz emankorrik ukatzen.

“... se piensa más bien, a mi parecer, que en la sociolingüística tenemos un arsenal que puede proporcionar los medios de solucionar, en un sentido determinado, nuestros problemas lingüísticos, que no son leves ni escasos. Esta convicción, la de un grupo por entonces, se manifestó ya no más tarde que agosto de 1980, con ocasión del congreso organizado por Euskaltzaindia” (1984a, 647. orr.).

Itxaropenbide berriak datozkio soziolinguistikatik euskarari, *corpus* plangintza soilaren ar-loan bideratu ezinak. Guztiarekin ere, Koldok baditu errezeloak gauzak ez ote diren uste baino bihurriagoak izango tresna teoriko hau eta guzti ere.

“Debería ser bien sabido, puesto que ésto se emplea a menudo como argumento contrario de fuerza casi mortal, que el conocimiento científico —y la sociolingüística es o aspira a ser una disciplina de este carácter— no da respuestas a muchas de nuestras preguntas, más precisamente de nuestras ‘grandes preguntas’, Tampoco nos pone en vías de satisfacer muchos de nuestros más sentidos deseos. No es, pues, ni una religión ni uno de esos sucedáneos nada infrecuentes en nuestro tiempo que bajo apariencias profanas buscan distribuir valores sagrados” (1984a, 647 orr.).

Ikerbide berri honen emariei ere, bere erakarpen eta guzti, mugak igertzen dizkio, eta ezin noski bestela izan. Bere garapen kontzeptualaren aldetik datozkiokeen mugak, besteak beste, bere jaio-berri izateari dagozkio. Bere jaiotze-data ere zehatz daiteke, dirudenez, Fishmanek aditzera ematen digun bezala: "La sociolingüística, término acuñado en 1949 para designar las actividades lingüísticas, es un fruto temprano de la lingüística norteamericana. Según sus progenitores, H.G. Currie y Curie E.G., esta nueva disciplina fue concebida como un subcampo de la lingüística y la sociología. Sin embargo, no ha alcanzado verdadera entidad hasta las últimas décadas pasadas".

Horiek, ordea, urrutiko intxaurrak dira. Noiztik eta noren eskutik gureganatu dira teoria berri honen irakaspenak? Azterketa mailako ekarpenak bederen ez ziren 1970 aldera arte gure artean somatu. I. Larrañagari jaramon egitekotan: "José M.<sup>a</sup> Sánchez Carrión "Txepetx" bera izan zen, hain zuzen, Euskal Herrian gisa horretako lanei hasiera eman ziena, 1970eko udan Nafarroan Euskararen egoera nolakoa zen aztertzen hasi zenean (*El estado actual del vascuence en Navarra (1970). Factores de Regresión. Relaciones de Bilingüismo (...)*). Esan genezake, beraz, Txepetxen lan hori izan dela Soziolingüistikaren alorrean, nahiz eta izen hori ez eraman, gure artean egin den lehenbiziko ikerketa sistematizatua"<sup>2</sup>.

Lehendik ere burutzen ziren dialektologia eta geografia linguistikoaren eremuetan zenbait ikerketa; haatik, hauei esker itxuratzen ziren ikuspide teorikoek ez zuten hizkuntz ukipen eta gatazkek beren baitan zuten dimentsio bertikalaren berri ematen.

"La sociolingüística, más reciente que adulta, trata ante todo de darles una nueva dimensión, en una estratificación que podemos llamar vertical, que complete la visión plana de la dialectología antigua y externa" (1971 b, 73. orr.).

Argibide sakonik eskain diezaiyuke euskaldunoi korronte teoriko berri honek; hizkuntzaren hedaduran ez ezik, orain bere erropen sozialaren datu gidagarririk ere argitaratuko digu. Dena delarik ere, gure "galdera haundiei" erantzun zuzenik emateko gaitasuna falta bazaio, ezin hartuko digu euskararen arazoentzat inoizko mirari gisa.

"La consecuencia de orden moral que estamos autorizados a sacar cuantos nos inquietamos por el presente y porvenir de alguna lengua es que, por muy expertos en sociolingüística que lleguemos a ser, no nos será sencillo hallar remedios garantizados y menos panaceas infalibles. La única certeza accesible para quienes se han acercado a la historia de las lenguas (y, a todo tirar, hasta para quien no conozca sino el presente y poco más de un par de ellas) es que, cuando alguna goza de espléndida salud en extensión y profundidad, podemos confiar en que le queda por delante una dilatada existencia. Si, por el contrario, vemos a una lengua en graves apuros, sabemos de condiciones que estamos justificados en considerar necesarias para su supervivencia, por más que no sean suficientes. Estas y aun aquéllas, sobra decirlo, no siempre están en nuestra mano" (1984a, 648. orr.).

Mitxelenaren azken testu honek zalantza-kezkatan laga gaitu. Hizkuntzak, argi dioenez, gutxienezko baldintza orokorra bereganatzen ez badu, ez bide du bizi-iraupenik erdietsiko; gutxien-gutxienez, oinarrizko beharrak asetzeko modua izan behar du, nahiz eta hori ere askitzat ezin jo den. Eta, tamalgarriena hau da, ez omen dago gure esku, nahiz bata nahiz beste, eskuratzea. Ez digu esaten ordea, ezintasunaren gakoa zertan datzan, esan badaiteke behinik behin. Eta hori bai dela gure jakinmina; alegia, hizkuntza baten egoera prozesu diglosikoaren barrena azken burura iristear egonik, ea biderik, nahiz zabalagorik nahiz estuagorik, badagoen ostera hizkuntza hori baldintza soziolingüistiko ezinbestekoan ezartzerik normalakuntz politika bati esker.

Arazo larri honen inguruko bi ikuspegi desberdin ekarriko ditugu hona; lehenik itxaropentsua, bigarrenik, "zenbaiten eritiziz", errekarako bidean gaude, galmendira goaz halabeharrez. Esperantzarako bidea Ameriketatik datorkigu Fishmanen eskutik: "Halere, gauza bat dago argi: hizkuntza bat arrisku-aldira iritsi izana ez da (behatzaile oker batzuen usteen kontra) ezinbestean beranduegi delako seinale. Egungo egunean ere, hiztun-herri edo hizkuntz elkarte desberdinak bata bestearen hain pegante eta hain elkarren menpeko diren une honetan, posible da hiztun-herri baten harreman-sareak eta hiztun-herriion arteko sare-mugak estabilizatzea. Horretarako, ordea, gauza bi jakin behar da zentzuz eta neurritz konbinatzen: batetik, herrigintza (ezinbestekoa da hori; hizkuntzaren gerorabidea ez litzateke hizkuntz politika hutsaren menturapean utzi behar), eta, bestetik, hizkuntz politikazko ahaleginak"<sup>3</sup>.

Laburragoa da I. Larrañagaren bitartez dakargun mezu goibela, "zenbaiten eritiziz" dator, inork bere ahoz aitortu nahi ez balu bezala: "Guzti honen ondorioz, euskara kinka larri batetan aurkitzera iritxi da. Egoera larri honen sintomak kontutan hartzen baditugu, zera esan dezakegu: Hizkuntzaren ordezkapen edo sustutazio prozesua oso aurreratuta dagoela, zenbaiten eritiziz, itzuli ezinezko puntura iritxita egotera, betirako erdalundurik gelditzeraino, alegia"<sup>4</sup>.

Mitxelenaren azken aipua begira noraino eraman gaituen. Larregi desbideratu gara seguruenik; baina, egia esan, beste alde batetik begiratuta, ez zen aukera txarra Koldoren "no siempre están en nuestra mano" delako epaiari hitz-gogoetarik ez ipintzeko. Bego dagoen dagoenean; soziolinguistikaren ekarriak noraezekoak ditugula ondorioztatuko genuke batetik, alabaina, horretaz gain, Fishmanen ahoz esateko, "gauza bi jakin behar da zentzuz eta neurritz konbinatzen", ezarritako xedeetan kolpe huts egin nahi ez baldin bada, bestetik.

### Diglosia: sarrailek guztientzat giltza?

Gezurra badirudi ere, hala-holako egoera baten errainu eta ispilu izango zen hitz-kontzeptu batek berehalako bozkarioak sortu eta hedatu zituen hizkuntz komunitate menderatuetakoz hitz-kontzientzidunen artean. Penagarria litzateke irakurleri "Txepetx"en luma trebez diglosiaren aurkikundeak eragin zuen aztorapena ez erakustea hemen, baldin eta, irakurle horrek, dagoeneko ezaguna ez badu. Hona: "Había pues un sentimiento informe a la busca no tanto de autor cuanto de título, esto es, de palabra. Y cuando apareció por el escenario la palabra «diglosia» que tenía como ventaja no pequeña la de no haber sido nunca mencionada por los que ejercían la dominación lingüística desde el Estado, los «colonizados» cayeron sobre ella como soldados sobre un harem, convirtiéndola en madre de partos múltiples y portavoz de todas sus frustraciones"<sup>5</sup>.

Horra, beraz, hastapeneko lilurapenak, geroko teorizazio latzetan barrena abiatu denarentzat, bere argi-dizdirak horrenbestekoak izan ez badira ere. "Txepetx"en esanak, Mitxelenak beste modu honetara aditzera eman zituen bere garaian.

"Fergusonek ez zekien ongi zer gerta zitekeen hedatu zuen «diglosia» hitzarekin eta hitzak azaltzen edo estaltzen duen gogoetarekin: ezin asma zezakeen, lehenenak eginik ere, hortik sortuko zela euskarak dituen eta izan dituen nolanhiko gaitzen argibidea. Diglosiak joa dagoen egoeran, ez zaio orain beheko maila baizik aitortzen gure hizkuntzari" (1983a, 49. orr.).

Koldok esango zukeen bezala, diglosia kontzeptua ere, "beharrak beharra eraginik" sortu eta hedatu zen hor barrena. Bere aurretik bazen hitz-kontzepturik horrelako hizkuntz egoeren azalbidea egiteko. Ez, ordea, antza denez, gogo-betekorik. Ez bide zuten egoeraren konplexutasuna bere osotasun zehatzean, hotz, behar adinako ñabarduraz hornitua, isladatzen.

“Antes, a raíz de la Primera Guerra Mundial por lo que puedo recordar, se solía hablar de bilingüismo a secas, si se prescindía de que el prefijo *bi-* podía ser sustituido por otro si las lenguas de que se trataba eran más de dos. (...)”

Hoy se ha visto que ese planteamiento era demasiado simplista y para abarcar mejor esa mayor complejidad nació el concepto de diglosia. La cuestión no consiste en saber quién o cuántos poseen o no dos lenguas determinadas, las poseen activa o pasivamente, oralmente o por escrito y con qué facilidad y dominio. Lo esencial está en saber, y parafraseo libremente a JOSHUA A. FISHMAN, quién habla a quién, en qué idioma, de qué y en qué circunstancias emplea éste o aquél. Si dos lenguas coexisten en un lugar, difícilmente tendrán las dos el mismo rango, rango que podrá estimarse según muy distintas dimensiones” (1978c, 195. orr.).

Ikusten denez, garai bateko elebitasunaren problematikak, ia beti norbanakoaren zentzu hertsian harturik gainera, bide eman dio gerora nola edo hala jaio behar zuen kontzeptualizazio berriari. Irauli egin da nolazpait ere problematikaren muina: hutsaren hurrengo hizkuntz ezagutza zertan den jakitea, hizkuntz erabilpenari buruzko argibideetan ilunpe hutsean egote-kotan. Hizkuntzen gizarte-dinamikaren ardatza, hobe beharrez beranduxe idoro izan dena, ez datza ezagutzaren datu estatistiko hutsaletan. Besterik baizik, Koldok ederki dioen gisa: hizkuntzak zertarako erabiltzen dira, zer funtzio eta ze eremu dituzte beren eginkizuntzat. Horra, auziaren mina.

“Con estas lenguas y con el euskera, nos encontramos ante el peligro de la diglosia, término que hemos asumido recientemente, pero que ha hecho furor. Entonces, tenemos que si creemos que el euskera debe ser el idioma prioritario de la comunidad vasca, y si esa prioridad no se produce, el euskera entra en una situación diglósica, es decir, de inferioridad” (1981 d, 36. orr.).

Diglosia kontzeptuak hizkuntzen arteko desoreka estrukturala seinalatzeko badu ere, bere errainuak hiztunaren ihardueraraino iriten dira. Esango genuke, hiztunaren hizkuntz iharduera egitura soziolingüistikoaren eramaile den heinean, haren efektuak honengan dutela xede. Hori ulertu beharko genuke ondoren datorren puntuan: euskalduna ez da gai zenbait gai euskaraz pentsatzeko eta aditzera emateko.

“Es verdad; en San Sebastián había cierto prurito de saber bien euskera — gerrate aurreko giroaz ari da—. Era considerado elegante. Pese a que no se hablaba habitualmente, estaba bien visto, y la gente de buena posición de Guipúzcoa lo hablaba.

Naturalmente, y junto a ello, existía la típica situación diglósica por la cual no se habla en euskera con ciertas personas, ni de ciertos temas” (1977c, 33. orr.).

Aurrerapenak aurrerapen, Koldo ez zegoen ase-beterik kontzeptualizazio berri honen launtzarekin. Bai bait zuen susmoa, zenbait egoera linguistikori argibiderik eskaintzen bazion ere, beste zenbait ilunpean edo ez ote zen geratzen: harako “argitu adina estali”, alegia

“Pero esta precisión conceptual queda en buena medida circunscrita al estudio de las lenguas como sistemas abstractos y al de su evolución en el tiempo; es decir, a ideas como «transformación» o «correspondencia fonética». En cuanto hablamos de bilingüismo, de diglosia, hasta de dialecto, los conceptos, en los cuales entran ya consideraciones sociológicas, son toscos, mal definidos y difíciles de manejar. Es de esperar que esta situación mejore pronto (...)” (1974a, 182. orr.).

Soziolinguistikaren status teorikoa auzipean jartzekoa denez, beste edozein teoriaren gisa, baina areago honi dagokionez zegokion atalean aipatu diren arrazoiak lekuko, bere egitura teorikoa taxutzen duten elementuren izaera orobat salatzea zentzuzkoa dirudi. Guztiarekin ere, parte honekioa burura eraman baino lehen, besterik ezean, mugarriak jar diezaizkiongun termino honen hedadura-erabilerrari. Horretarako Mackey-k eta behinola agertu zuten eske-matxoa erabiliko dugu. Hara, bada.

Egoera diglosikoaren ezaugarri nagusiak bi hauek omen dira:

1. Hizkuntza boteretsua, edo A mintzaira, bizitza sozialeko goi-eginkizunetan erabili ohi da (administratziarako, kulturarako, informaziorako), eta eskuarki hizkuntza idatzia izaten da. Hizkuntza ahula edo B mintzaira aldiz, hiltunen eta ohizko egikizunen mundura mugatzen da, nahiz familiarako nahiz lagunarterako edo beste nornahirekin gai arruntei buruz mintzatzeko..., eta inoiz gainera hizkuntza hau ahozkoa besterik ez da, ez idatzia eta ez normalizatua.

2. Hizkuntza ahaltua edo A mintzaira, gizartearen eginbehar goitiarretan erabili izan ohi da, B hizkuntza ostera behe-mailako funtzioetara makurtzen da gehienbatean, beti ez bada. A hizkuntzaren erabilpena irakaskuntza eta kultura barrutiek bat dator. Era berean, hiritasun-graduarekin ere ados dago. A mintzaira usuago erabiltzen da hirian, eta B ostera landa-eremuan erabiliko da gehien.

3. Bi ezaugarri hauei, ohizkotzat jo izan direnei, hirugarren bat ere erants dakieke. A hizkuntza ama-mintzairatzat daukatenen artean elebidunen zenbatekoa urriagoa izango da B halakotzat daukatenen artean baino. Bestela esanik, A-z mintzo direnek ez dute B-z mintzo direnek adinako beharrik eta premiarik besteren hizkuntza ikasteko.

**Elebitasuna: bere izaera eta etorburua Euskal Herrian**

Soziolinguistikaren barruti teorikoan, bertan murgildu den nornahik daki hori, kontzeptuen zehaztapena eta beroien mugarriak, ez dira nahi adina zorrotzu oraino. Kamustasuna, ordea, kontzeptu batzuetan areago doa bestetan baino; horien artean, bat nabarmenik bada, elebitasunarena dela azpimarratu behar, ideia honen erabilkera azaltzeko ez bait dago zerako euskal esaera zahar hura baino aproposagorik: "zenbat buru, hainbat aburu", alegia. Egia da, gizarte-zientzia gehienetan arazo franko antzekoak direla; hots, hitzen adiera arrunta, ideologia ororen mirabe bilakaturik, lehiatzen zaiola etengabe status teorikoa gorde eta zaindu nahi duen esanahi zehatzari. Elebitasun kontzeptua bere luze-laburrean finkatzen saiatu denik bada gure artean, Txepx bereziki, baina interes linguistikoak, sarrienik, interes teorikoen gainetik daude eta egoera hori gaintitza, ezta zientzia hutsaren egitekoa izango zantzu guztien arabera.

Koldo Mitxelena ondo asko ohartu zen (ikus Diglosia atala) elebitasunaren ideiak ate hainbat marartil zituela eta beste termino zorrotzago batzuren beharraz. Beste toki batzutan aipatu dugun elkarriketa batean, X. Letek galde egin zion ea berak zer ulertzen zuen elebitasunaz, ea ze arraio zen hori berarentzat. Ihardespena zentzu honetan burutu zuen.

"El bilingüismo es y debe ser, ante todo, la equiparación legal de dos lenguas. Pero el problema, ahí, es el de la lucha" (1981 d, 41. orr.).

Hizkuntz koexistentziaz dezente idatzi duen Koldok, hizkuntzen historiaz biziki arduratua bizi izan bait zen; eta ez, jakina denez, mendebaldekoen zoriaz soil-soilik, ekialdeko hizkuntzen elkar-bizitzaz ere lehen eskuko informazio oparoa erakusten zuen gaia jorratzerakoan. Hizkuntzen arteko ukipena zegoen lurraldeetan, elkarrekiko lehiak hartaraturik, hizkuntz gatazkak nabarmendu izan dira aintzantatik. Hori ukatu gabe, Koldoren iritzi, ukipeneko hizkuntz

koexistentzia inoiz baino tirabira bortitzagoz lehertzen ari da azken mendeotan. Garai bateko inperioen inbasioak hizkuntzen desagerepen-kausa baldin baziren ere, orain, hau pentsatzeko aski daturik badagoela dirudi, sistema sozialak hizkuntz komunitateen barrenetik erazuten ditu hizkuntzak, hauek boterearen aldetik euskarririk ez dutenean. Lehen beraz, bortxa fisikoa- ren eragin zuzenaz, orain berriz, bortxa hori gertatzen denaren azken funtsa bada ere, sistema sozialaren barne-logikak ez du lekuri uzten egoera minorizatuetera azpiraturik bizi diren mintzarentzat. Orain, guzti hau dela eta, faktore berriak begiztatu ditu hizkuntz koexistentzia desorekatuan Koldok.

“Cualquier persona que viva hoy pensará, además, que los conflictos no se planteaban antes como ahora. Bien, yo me siento inclinado a suscribir esto en el sentido de que, aunque no sea ni mucho menos la primera vez que se produce la entrada de factores nuevos en la historia de las lenguas, éstos aparecen ahora con una frecuencia y un poder que no tienen precedentes...” (1978c, 194. orr.).

Gizarte elebitasuna, eta hauxe da hemengo auzia dudarik gabe, ez norbanakoaren hizkuntz tipologia, kezka-iturri gertatzen zaio Mitxelenari. Baina, okerrenean ere, gaitzerdi, elebitasun sozial gatazkatsu hori; bere ondoren datorrena makurragoa baita gehinetan hizkuntz herri xumeentzat.

“Sí lo parece, en cambio, (temible) cualquier situación de bilingüismo. La verdad, yo no sé si ésta, donde reduzco el plural al dual, es deseable en sí: pero, peligrosa y todo, es muchas veces inevitable y, para la lengua menor, un mal menor. Las lenguas vecinas, en contacto, pueden ser causa de conflictos” (1984a, 652. orr.).

Elebitasunaren arazoak, hortaz, gizarte bat berean hizkuntza batek baino gehiagok eremu eta eginkizunak beregatzten dituztenean sortzen dira. Besterik da elebitasun indibidualaren kontua: berez, ez dute zer ikusi handirik elkarrekin, azken hau gizarte elebidunetan suertatzen ez bada behinik behin. Gure euskaltzale sutsu hura, “Aitzol” alegia, ikuspegi beretsukoa zen Euskal Herriari dagokionez, nahiz eta elebitasunaren azpikaldean hizkuntz aldaketak noren aldera makurtzen diren ederki jakin. Alde batetik, beraz: “Nuestra posición geográfica en medio de dos grandes culturas, la francesa y la castellana, nos aconseja un prudente régimen bilingüista, si no en las zonas rurales, sí en los medios intelectuales e industriales. Y esto por un período que nadie puede precisar”. Baina,aldi berean, ordurarteko elebitasun egoera edo ezarpena, ez zitzaion eredugarriegia iruditzen, elebitasun sozial hura azpitik euskararen zutabeak desegiten ari zela ohartzen bait zen: “Pero por desgracia, y hasta hace pocos años todavía, este régimen bilingüe, con caracteres de hecho consumado, ha vivido abandonado a su propia suerte, o, mejor dicho, con provecho y medro notorio de la lengua oficial del Estado”<sup>6</sup>.

Gizarte elebidunean, hau da, gizarte eginbeharretarako mintzaira bat baino gehiago erabiltzen den gizartean bizitzea ez dirudi gauzarik erasoena denik. Koldoren esanei bagagozkie bederen, horko gatazken pean ihardun beharra, ez da inori opa dakiokena; batez ere, jakina, mendeko hizkuntzako hitzun baldin bazara. Hara zer-nolako gomendioak aipatzen dituen halako hitzun gaisoarentzat.

“Si salta a la vista que no solemos elegir la primera lengua o la segunda, se sigue de ello que, como ya se ha sugerido, el bilingüismo, si ese es nuestro destino, también nos viene forzado. Si lo tenemos pues que sobrellevar, sabiendo que hemos de soportar sus perjuicios no sin alguna mezcla de ventajas, lo mejor es seguir lo que nos aconseja, creo, alguna de las obras de misericordia: me refiero a aquello de «Sufrir con paciencia, etc.»” (1984a, 652. orr.).



Gizartezko elebitasun moldeak ere, bistan denez, era askotakoak dira: batzu besteak baino orekatsuagoak, edo iraunkorgarriagoak, edo gatazkatsuagoak etab. Idazlan honetan batez ere gogoan daukagun eredia, Estatu-Nazioen sorrera eta ezarpenarekin bere mendeko, mai zenik hizkuntz herri arrotz eta suntsigai, suertatu dena da. Mitxelena ez du ematen egoera honen miresle denik: inoiz edo behin hizkuntza nagusiaz jabetzearen alderditxo onuragarriak aipatu baditu ere. Horrelako prozesu historikoen harian txertaturik geratu diren hizkuntz herriak, atarramendu onik edukitzeko, gauzak gehiegitxo aldatu behar direla dirudi. Iritzi horretakoak dira Mackey eta horiek ere. “Y cuando en una situación bilingüe coinciden una lengua minoritaria y una gran lengua internacional el desnivel puede resultar insuperable”<sup>7</sup>.

Antza denez, elebitasun soziala ez da inoiz inon halako egonkortasun baten ezagutu: ez dago horrelako adibideen atzerakorik. Guzti hori, berriz, beren kontraesan gaindiezinak direla medio, areagotu egiten da gurea bezalako testuinguruetan. Alde batetik proiektuaren nahia eta gogoia dagoela adierazi behar da; ez dagoela beste irtenbiderik alegia, eta ereduren bat erdietsi behar genukeela gurerako, horretarako argibide guztiak kontra egon arren. Eta bestetik, teoriako ezintasuna gauza nabaria da gaia zertxobait jorratu duen ororentzat. Eusko Jaur-laritzaren txosten batean ere gauza bera irakur dezakegu. Hara: “Euskal Herrian nagusiki erabiltzen den elebitasun kontzeptoa hemen aipatutakoetatik aurreneko bada, elebitasun osoarena alegia, esan beharra dago European eta munduan honelako gizarte elebidunik ez dagoela”<sup>8</sup>.

Hiztun elebidunak egotea, edonork nahi adina hizkuntza jakitea eta ahal duen neurrian erabiltzea, elebitasun indibidualaren arloan kokatzen dela esana dago. Bestea, gizartezkoa, ezinbestez, diglosi gradu batekoa edo bestekoa izango da: hori diote orain arteko ikerlanek gutxienez. Gizartezko elebitasun osoaren ezina, kontraesan sozialen eremuan dauden burruken ondorioz ulertu beharko da: nazioak eta klase sozialak daude hor beren hizkuntz hegemoniaren atzetik. Hil ala biziko burruka itsu horretan, hizkuntz koexistentziari buruzko asmorik bikainenak, tamalgarriro, inolako oinarririk gabe geratzen dira. Honela esplikatzeko du Aracilek ezinaren zioa, lege eta burruka-korronteen zurrumbilo materiala.

“El proyecto de un bilingüismo bi-lateral, exigido por las convicciones democráticas y por las reglas más elementales de *fair play*, resulta ser inviable porque las resistencias que provoca son más fuertes que el impulso que lo promueve. El caso de la Irlanda independiente, retóricamente patriótica, es una ilustración patética de la futilidad de un “voluntarismo” entusiasta e inconsecuente, bienintencionado e inepto, que no se ha preocupado de alterar (ni siquiera de esclarecer) los mecanismos subyacentes al proceso de substitución”<sup>9</sup>.

Elebitasuna, gizartezkoa denean, ia beti, gizarte dinamikaren higiduraz, elebikuntza dela ondorioztu beharra dago. Zera alegia: burrukak burruka dakarrenez, hizkuntza bat ez dago inoiz hor geldi-erosoan pausatuturik, bera bitarteko duten indar sozialen kontraesanen leherpe-nee lehia eta tema darie. Horra elebikuntza soziala: inoiz elebakarra izandako herria, ukipenaren eta agintearen bultzadaz elebiduntzen da, eta azkenerako gizarte elebakarrak bilakatzen. Hau izan da, *mutatis mutandis*, herri zeltiarren, okzitanoa, gailegoa eta beste askoren kondaira, euskara tartean delarik.

Gauza jakina da, eta hori Koldok inork ez bezala zekien, gizarte-egitura eta baldintzen arabera, elebikuntzaren erritmoa aldakorra izan dela. Leinu gizarteetan zegoen arrisku bakarra, beste zibilizazio edo kulturen inbasioa zen. Erdi Aroaren azken boladan izan ezik, Monarkia absolutuen hastapenekin zehazkiago, ez da hasiko hizkuntz herri autonomoen esitura geldiro pitzatzen. Egia da erromatarren garaian, Mitxelenak dioskunez, hirigintza eta merkataritzako ekonomiaren hedaduraz, euskara itolarrian aurki zitekeela inperioaren gainbehera gertatu zen

unean jazo ez balitz. Guztiarekin ere, aurreratu daiteke, kapitalismoaren harreman sozialak finkatu arte, hizkuntz herrion hala-holako autonomia nahikoa izaten zela, hizkuntza ofizialaren idatziko eginkizun ia guztietarik bazterturik bazeuden ere. Oso oker ez banago, Koldoren hitzok beste lekuren batean ere jasoak ditugu, diogunaren lekuko: “Idatzi, noski, erdaraz idazten zen edonon eta ofizialtasuna, axalekoa bederen (ahotik belarrirakoa ez baitago gehienetan jasorik), erdarari, erderei hobe, zegokion. Baina eginkizun goitar eta dotoreago hauek ez ziren segur aski deus asko eguna joan eta eguna etorri erabiltzen ziren oinarritzko eta premiazkoen aldamenean”.

Elebitasunaren auzi-mauziak, halabeharrez, azken puntura ekarri gaitu. Azkenerako utzi bait dugu Koldoren lumatik frankotan atera den hipotesia: Euskal Herriko elebitasun edo eleantzasunaren aintzinasuna dugu aztergai oraingoan.

“Guk dakigun garaian, azken bi mila urte honetan, lehen esan dudan bezala, Euskadiko eremua osorik hartzen baldin badugu, eskualde hori ez da inoiz —bi mila urte horietatik gora nik ez dakit zer gertatzen zen— osoro eta zeharo euskalduna izan. Egia da euskara hortik kanpora eta aski zabalki egiten zela, baina eskualde horretan guztian ez zen euskaraz soilik egiten: euskararen aldamenean bazegoen beste hizkuntzaren bat” (1981 b, 265. orr.).

Dokumentuzko eta bestelako iturrietara jotzen bada, beste hizkuntzaren batekin topo egiten du euskararen historialariak. Datu horietan oinarritu izan da halaber euskara hemengo gizartearen adierazpide osoa inoiz ez dela izan frogatzeko.

“Gure artean eta guk gauzak ongi ezagutzen ditugun garaian, ez da sekula euskara hemengoan adierazpide edo mintzabide oso izan. Beste hizkuntzaren bat izan du beti aldamenean. Behar bada hemen maila batean edo bestean erabiltzen ziren hizkuntzetan euskara maiteena, bihotzkoena, kuttunena zen, edo nahi baduzue, etxe-koena; baina etxetik irten ahala eta beste beharretara eratzen ginenean, hasten ginen berehala beste hizkuntzaren bat erabiltzen, honetarako edo hartarako” (1981 b, 264. orr.).

Euskal Herriaren elebikuntza, hau da, inoiz elebakarra izan ez zela pentsatzeko ez bait dago arrazoirik, eta historia erreala ez dira noski idatzizko historiara murrizten. Bestela esanik, herri honen historia materialaren aurren-aroko elebakartasunaz pentsatzea bekatu ez denez, hitz egin dezakegu elebikuntzaz: batez ere, eta geroxeago aipatuko dugu atzera, elebikuntza horren zentzua eta izaera ongi mugarrizten diren heinean. Aurretik, euskaraz idatzitakoen indotik, gaztelaniazko lerrook dakartzagu irakurgai.

“Situaciones de bilingüismo, que han tenido siempre o casi siempre a la diglosia, han tenido que darse también en el interior del país a lo largo de varios siglos y no solamente en ciudades como Vitoria, en menor grado Bilbao, etc. El conocimiento de una o varias lenguas románicas no era tan sólo un hecho de clase, de estratificación social, ya que el escribano «vizcaíno», que por lo común no era de elevada extracción, fue durante siglos una institución española” (1986a, 241. orr.).

Hizkuntza bakarreko eskualde eta eremuetan, esan nahi baita, gizartezko elebitasunik ez zegoenetan, bigarren hizkuntzaren sarbidea era askotara gauzatu da: indarraren indarraz, indarra eta kulturaren eragina konbinatuz, edo botere soziala dela medio halakoxe “bakezko” hegemoniari esker. Hizkuntzen hedakuntza nolana hikoia izan delarik ere, hastapeneko elebikuntza nekez izan ohi da gizartezko elebitasuna, bapateko inbasio edo uholderen bitartez ez bada behintzat. Hori delako edo, Sánchez Carriónek ohar batzu eskaintzen dizkie bere obran Mitxelenaren aitorten hauei.

“Es posible que en el caso euskaldun el bilingüismo sea un fenómeno antiguo (Cf. MICHELENA, 1957, 144) «una de las especiales condiciones a las que ha estado sometida la evolución histórica del vasco ha sido la de largos siglos de bilingüismo no limitado a las clases altas, que posiblemente no empezaron con los comienzos de la influencia romana». Pero era un bilingüismo individual. Todos los datos que tenemos apuntan a que en el centro de la territorialidad euskaldun el *bilingüismo social generalizado* es un hecho moderno”<sup>10</sup>.

Ez da gure asmoa Mitxelenaren posizio teorikoak gaitzestea, ez baitugu horretarako ez ahalmenik ez gogorik. Dena den, auzi honen inguruan han-hemenka irakurri eta entzuten dugunak minberatu gaituela ez dugu ukatuko. Bai baitirudi, euskararen arerioek eta ez hain arerioek, tesiok beren posizio linguistiko-ideologikoei eusteko trebeki erabiltzen dituztela. Are ghiago, beraien guztizko nagusitasun ideologikoak, honelako proposamen teorikoak nahi dituzten erara maneiatzeko esku ematen die. Ideien ezarpena eta hedapena, berriz, gauza jakina da, ez dela arrazoiaren bideetan barrena mamitzen sarrienik. Hori dela bide, ez genuke puntu istilutsu hau bertan behera utzi nahi, beste ikuspegiren bat edo beste honeratu gabe. Has gaitzezu Aracilekin, gure opila sutara hurbiltzen.

“¿Cuál fue la distribución inicial de que partió el proceso que ha producido la situación minoritaria? En *todos* los casos estudiados, se sabe con certeza que, tiempo atrás, la gran mayoría de la población era hablante unilingüe de X —tan unilingüe al menos como lo era la gran mayoría de la gente inglesa, por ejemplo. La gran mayoría de la gente inglesa continúa siendo unilingüe. ¿Qué ha ocurrido en Escocia, en Irlanda y en Gales?— si nos limitamos al ámbito británico. Las historias particulares caen, sin embargo, fuera de los límites y del propósito de esta comunicación. Lo pertinente aquí es un tipo de historia tan abstracto como el concepto de la situación minoritaria”<sup>11</sup>.

Herri minorizatuena historia, aldeak alde, logika historiko beretsuaren ardatzean hezurramitu da; Estatu modernuaren eta kapitalismoaren marko pean burutu dira hizkuntz ordezkak. Ez da zentzugabea horrenbestez, alde bakarreko elebikuntzaren dinamika, erritmoak erritmo, goizago ala beranduago, lege eta arau beretsuren arabera gertatu dela pentsatzea. Akulturazioaren prozesua jasan duten herri horien hastapeneko hizkuntz ukipena ere, ez da hain desberdina izango seguruenik: aginte monarkikoak eta burgesak mendebaldeko Estatueta mekanismo beretsuak erabili izan bait dituzte beren hizkuntzazko nagusitasuna ezartzeko.

Kolonializazioetan ere hizkuntzak ordezkatu dira, zegoenari besteren bat gaineratuaz. Calvetek honako honetan zera esplikatzen nahi liguke: haserako urratsak nondik-norakoak diren, kolonizatzaileen hizkuntza zein gizarte siletan txertatzen den.

“El primer estadio de la glotofagia que acabamos de describir era, de alguna forma, un estadio vertical: la diferenciación lingüística se manifestaba esencialmente en términos de clases sociales, siendo la corte, la nobleza local, la burguesía y, en menor medida, los sirvientes y algunos comerciantes, los primeros en empezar a alejarse de la lengua dominada. De esta forma, los que adoptan la dominante son aquellos que, en el sitio, se hallan cerca del poder colonial o lo representan, y los que trabajan para él (servicios, comerciantes, pero también, en los países con tradición escrita como los del hexágono, escritores, poetas, etc.)”<sup>12</sup>.

Corpus plangintza: euskararen standardizazioa eta beste

Hizkuntz standardizazioaz, euskararen batasunaz, hizkuntza gaitasunaz hitz egin nahi genuke sail honetan; eta, orohar, corpus plangintzat jo izan den guztia soziolinguistikaren terminologia. Auzi guzti horiek azken plangintza mota honen baitan kokatzen badira, zentzuzkoa dirudi Koldoren iritziak gai honekiko jaso aurretik, *corpus* delakoa zertan den adieraztea. Goazen

bada, honi buruz Fishmanek behiala gure artean esandakoa hona aldatzea. ZUTABEko kazetariak honela bide eman zion entzun nahi zuena esan erazteko:

G.- “Hizkuntz planifikazioan bi sistemaren dinamika dugu. Alde batetik, *statusaren* planifikazioaren eta *corpus-planifikazioaren* arteko dinamika. Bestaldetik, hizkuntza eta gizartearen dinamika, ekonomia eta beste alorretan”

Honela erantzun zion Fishmanek, haren jakinminari:

E.- “Hizkuntzaren *statusa* planifikatzen duzunean, gizartearen bizitzarekin topo egiten duzu. Hizkuntzaren *corpusa* planifikatzerakoan, aldiz, hiztegiarekin bakarrik diharduzu eta hori gizartearekin ihardutea baino askoz errezagoa da. Hala ere, hiztegi horri indarra eman nahi baldin badiozu, orduan gizartearekin lan egin beharko duzu. Orduan, azken finean beti *status-planifikazioa* egiten duzu (...)”<sup>13</sup>.

Juduak hor egiten duen azalpenarekin agian ez dira argi geratzen *corpus* eta *status* plangintzen arteko mugarririk, hauek, jakina, zehazgarriago diren heinean, zeren egia baita hor ez dagoela erabateko lerro-bereizgarriarik. Ea bada, Cobarrubiasen testu honetan jakin erazten denari esker, ñabardurak aisago antzematen diren. Honela dio bilbotarrak: “En 1966 Hauge presenta su conocido modelo consistente en cuatro etapas de planificación: (1) selección de una norma, (2) codificación, (3) elaboración, y (4) implementación. En 1969 vuelve a definir planificación lingüística como «el trabajo normativo de academias de la lengua y comités, todas las formas de lo que comúnmente se conoce como cultivo de la lengua, y todas las propuestas de reforma lingüística o estandarización». Se establece así la agenda de la planificación y se divulga y populariza el modelo. En el mismo año de 1969 Kloss introduce la distinción entre *planificación del corpus* y *planificación del status*, una distinción de suma importancia para comunidades minorizadas”<sup>14</sup>.

Bereizkuntza hori maila teorikoan bederen argi finkatua utzi zutenez, maila praktikokoan ez dirudi arazo larririk dagoenik nori zer egitea dagokion jakiteko. Zein den alegia Euskaltzaindiaren iharduera-barrutia eta zein agintearen eskuharmen eremua. Alde horretatik, ez dago zalantza izpirik, behinolako “Jagon” sailaren nondik-norainokoak inoiz sesiorik sortu bazuen ere.

Esan berria dugu bi plangintza forma horien arteko erabateko zedarriztapen zorrotzik ezarzea gaitza dela, eta horretara garamatza Mitxelenaren aipuak ere Azkueren batasun-egitasmoa arakatzten ari denean.

“Sólo describiré o comentaré de pasada el plan de Azkue. Aparte de aspectos discutibles siempre inevitables en una obra personal, y más cuando el tema es tan conflictivo, el proyecto de don Resurrección se nos presenta hoy como una tentativa en principio muy razonable, que ofrecía —es lo menos que se puede decir— base para la discusión. Si no se discutió nada, fue porque el apoyo con que pudiera contar —apoyo que, en primera instancia, era político, más que social—, no se veía por parte alguna. Azkue, el mismo que rigió con férrea vara la Academia, no intentó hacer presión sobre ésta, ni sobre nadie en realidad, por temor sin duda de que se produjera un cisma irreparable” (1982a, 68. orr.).

Elkarri atxekiak daude beraz prozesu bakar baten baitan, nahiz eta, noski, izatez eta egitez, maila deserdinetan gauzatu. Euskararen batasunari buruz harturiko erabakian argi daku-sagu *status* plangintzaren lehentasuna, eta pisu erabakikorra *corpus* plangintzarekiko. Mitxelena ederki ohartu zen Eleizalderen jokabidea zela eredutzat hartzekoa auzi honetan, Azkuerena noragabekoa zenez. Eta aitorten hori hitzokinean egiten dugu.

“Eleizaldeak dioenez bi motako arrazoiek behar dute izan gidari hautatze horretan: arrazoi linguistikoeak, hizkuntzaren egituraren bertan finkatuek, eta arrazoi, nola-bait esan, sozio-linguistikoeak.

Dudarik eta zalantzarik gabe uste dut, eta bat nator Fernando Mendizabalek argitara dituen iritziekin, azkenekoen pisuak behar duela izan nagusi egiten den bereizketan. Besteek dutena baino larriagoa baita. Bestela esan, batak ez daude besteen ondoan jartzeko neurrian, ezta alderatzeko ere” (1970a, 122. orr.).

Horra arrazoiak euskalki batzuren alde eta besteen aurka. Hautapen honetan, izan ere, izan da galtzailerik, galtzailatzat euskalkia eta euskalki hori mintzo diren euskaldunak hartzen baditugu bederen. Horiei, bizkaitarrei adibidez, zailago egiten bait zaie euskara baturako igeraldia, hizkuntzaren eginbehar batzuetarako bada ere. Koldok aitortu izan du alde txar hori.

“Es innegable, y éste es el aspecto más doloroso de la iniciativa, que este último dialecto —bizkaierari buruzari da hor— sale de estas transacciones como mayor perdedor” (1982a, 72. orr.).

Halaz guztiz ere, euskara biziko bada, urrats hori eman beharrean aurkitzen da derrigor. Askotan esan ohi zuen errenteriarrek hobe dugula euskara bizia bere alde makur guztiekin eta ez euskara hila bere ohorezko apaindura guztiekin.

Hemen tratatzen ari garen bi plangintzen arteko lotura hori ager erazteko, “dialektika” hitza ere erabili zuen behin bederen. Bata bestearekiko baldintzapen estatuaren adierazpide. Bata gailen bada ere azken finean, haatik ezin gutxietsi da hizkuntz egokitzapen eta modernizazioa bilakaera hauetan.

“Argi dago, hizkuntza edo, hobeki esan, erabiltzen dugunok, bi oztoporen aurrean geundela. Batetik, hizkuntza berdindu eta egungo premietarako egokitu beharra. Bestetik, gizarte barrenean adierazpide eta komunikabide bezala jasotzeko zeregin politiko soziala. Biok elkarri hertsiki lotuak daude —dialektikoki, esaten omen da orain—, inolako teoriak, bere indar hutsez, ezin baitu bere zoria aldarazi ez batera ez bestera, baina, hala guztiz ere gorde nahi den hizkuntzak, pilatu eta metatu ez baina erabilkuntzarako eragozpenak kenduko dizkion barne baldintza batzuk behar ditu” (1978 b, 41. orr.).

Auzi honetan, nolabait esateko, desajuste historiko latz baten mendean dagoela dirudi euskaldungoa. Alegia, “euskara biziko bada (...) gure herrietako biziera nahasia euskaraz jarri behar nahi eta ez”. Baina posible al da? Ez al dago hor hizkuntza batzuren ezintasun frogarik edo atzean? Zergatik ez dira mintzaira guztiak aldi eta alde berean garatu eginkizun orotarako? Unamunok behin batez agertu zuen harako zea hark, euskararen berezko gaitasun ezak ez al zuen bada inolako funtsik izango? Galdera andana luzexkoa denez, Mitxelenaren aldetik jaso dezakegun erantzun-aipua ere ez da laburra izango.

“Como principio básico, yo sentaría una afirmación tajante: todas las lenguas, en principio, son equivalentes; no las hay, por naturaleza, ni mejores ni peores, ni más altas ni más bajas. Esto no está de acuerdo con los románticos, incluso HUMBOLDT, ni con los primeros comparatistas hasta SCHLEICHER, (...). También va contra UNAMUNO (es decir, contra JESPERSEN, su fuente) que confundía la evolución que de hecho se observa en una parte de la familia lingüística, otra vez la indoeuropea por extraña casualidad, con la evolución de la Humanidad. ¡Como si el ruso, con su soberbio sistema de declinación y una acentuación móvil que es la desesperación

de los extraños, fuera una lengua peor (o mejor) que el inglés actual!” (1971 a, 151. orr.).

Mitxelena hemen hizkuntzaren «izatez» ari da noski. Horretan Halliday-ren jarratzaile izan dugu, bere ustez hura oso neutrala izan delako gai hauetan: “Hizkuntza bat beste edozein bezain ona da, hizkuntza guztiak berdin egokituak baitaude gizarte bakoitzaren beharretarako. Ez dago hizkuntza primitiborik. Historiariek eta antropologoen *primitivo* teknikazko hitza bezala erabiltzen dutenean gizarte baten aurrerapen maila adierazteko izan ohi da, eta hortik gizarte beronek darabilen hizkerari aldatzen zaio. Hau ordea ez da linguistikazko klasifikazioa, eta fitxik ez digu esaten ahotan dugun hizkuntza honetaz”. Halliday-ren ahotan jartzen dituen ideia hauen arabera, argi dago kontzeptuen estrapolazio baten aurrez-aurre gaudela eta, pentsatzekoa da, hori horrela gertatzea ez dela halabehar soilaren ondorena. Balegoke hor harako zibilizaio-Estatu menderatzaileen kontrol ideologikorik; diskurtso ororen funtsa, gauza jakina denez, ez baita ezerezean oinarriturik egoten.

Euskarari dagokionean, nolnahi ere den, begien bistako gauzak ere esan egiten ditu —ebidentziaren harako hartaz oroitzuz, segur—.

“El vascuence no tiene tampoco nada, absolutamente nada, de lengua primitiva, suponiendo que este término pueda significar otra cosa que lengua de un pueblo de cultura primitiva. No es siquiera, por lo que nosotros podemos saber, ni un año más antiguo o más moderna que cualquier otra lengua próxima o lejana” (1954a, 636. orr.).

Aintzinasun kontuetan barrena abiatu garenez, garai haietako euskararen kemenaz zerbait ekar dezakegu hona Koldoren eskutik. Latina baldin bazen ere eginbehar goitiarretarako hizkuntza, euskara aski eta gehiegi zitzairen orduko euskaldunei: euskara gauza zen alegia gizarte modu haren adierazpide ia oso izateko, “ia” horren beharrezkotasuna arras faktore huttsala zelarik aro luzeetan, eta ezer ez erromatarrak iritsi arte.

“Se puede afirmar sin vacilación que, como suele ocurrir en esos casos, la lengua propia era perfectamente capaz de servir para las necesidades vitales de la comunidad antes de la llegada de los romanos. Era sin duda un buen instrumento de comunicación para la organización económico-social que les era familiar” (1984 b, 162. orr.).

Hizkuntzen garapenaren arazo hau aski ezaguna da zenbait eztabaidatan. Batez ere, delako “hizkuntza nazionalak” ezartzen hasi ziren mendeetan eta oraintsu arte, zenbait mintzaira zapalduren ezintasuna frogatzeko erabili izan da. Baina hizkuntza ez-ofizial horiek inoiz aski errotuak zeuden funtzio sozial formaletan ere, eta orduan besterik “arrozitu” behar izaten zuten Katalunian, Okzitanian eta abar. Katalaneraren lekukotasun bat aldatuko dugu hona ilustrazioaren garaian gauzak zein ikuspegitik tratatzen ziren jakiteko; hobeki esan, boterearen hizkuntz ideologia zein terminotan adierazten zen ikusteko.

“(…) Els governants espanyols illustrats, quan volen dissenyar el nou escenari lingüístic de la monarquia, no parlen pas d’eliminar el català *perquè es tracta d’una llengua inservible*, car això no és veritat (en aquells moments és la llengua de l’escola, dels tribunals i de les cúries i té un passat recent de llengua administrativa y legislativa). No: hom val ajustar els seus propòsits als postulats imperants segons els quals a cada nació li pertoca una llengua. La jerarquització lingüística que hom volia imposar no era res més que el fill bastard del seu nacionalisme opressor i xovinista”<sup>15</sup>.

Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu *corpus plangintza status plangintzarekiko* menpeko dela. Goiko pasarte hori irakurri bezain laster, berriz, beste gogoeta hauxe datorkigu gogora: *status plangintza* hizkuntz politikaren mendeko dela, honen aribide eta lanabes tekniko bilakatzen baita hura. Azken hondarrean, hizkuntz boterearekin egingo dugu topo; eta, egia esan, standardizazioa, modernizazioa, ezarpen soziala eta gainerako prozedura guztiak, ez lirateke hizkuntz politika orokorrari darizkion adar eta adarñoak besterik. Hizkuntz politika orokorra, bestalde, proiektu politik-nazionalaren ardatzean hezurramitzen da gizartearen egitura-sistema kokagunetzat harturik.

Atal honetako gaiaren harira itzulirik, diogun hizkuntzen gaitasuna “izatez” beretsua baldin bada ere horien artean, hizkuntzak egokitu eta garatu beharrean sentitzen direla aldiro hizkuntz premiei egokiro erantzungo badie. Oraino bete ez dituen funtzioak eta eskuratu ez dituen eremuak arrotz zaizkion neurrian, historia sozialarekiko etendura bat jasan duela pentsatu beharrean gaude delako hizkuntza horrek: ez duela, alegia, gainerako gizarte-egitura eta inhardunei buruz hazkunde beretsua eta parekoa mamitu bere baliabideetan.

Hizkuntzak, Mitxelenaren hitzetan, langarriak dira, eta lantze kontu horretan ez dute denek kondaira berbera ezagutu. Euskararekikoan, zera galde egiten du.

“Berez gai denik euskara horretarako eta gehiagotarako —filosofia eta jakintza gaiak zituen hor gogoan— beste edozein hizkuntza den bezalaxe, ezin uka, baina egungo egunean landugabea luzaro landuak baino gehiago eta zehatzago izan? Gaitz dirudi.

(...) Eta artzain-ikazkinak utzirik nere antzeko erdi ikasietara baldin bagatoz, nabari da zer gertatzen zaigun, behin eta berriro: hitz eskasean aurkitzen garela sail askotan eta, okerrago dena, hitzak ditugunean hitz horiek ez daudela erdarazkoak bezain zehazkiro mugatuak. Eta, nere ustez, zehaztasunak balio du argitasunak adi-na gai horietan” (1960a, 87. orr.).

Hara nola, beraz, hizkuntzaren egitura linguistikoari dagokionez hizkuntza ororen gaitasun-ahuleriak antzekoak izanik, bere egitura soziolinguistikoan aurrerapen-atzerapenak gertatzen diren. Euskararen desfase hori egitura soziolinguistikoetan atzeman behar denez, elementu estralinguistikoan esku datza, antza denez, bere baliabideetan urri eta ezgai izatea. Edo, Koldori jarraiki, zorroztaile txarrei egotzi beharko litzaieke haren amustasuna.

“Gehi dezagun ez dela berez hizkuntza amutsik, horrelako hutsik ageri baldin badu, zorrotz zezaketen adina zorrotzu ez dutenena dela soil-soilik errua, behiala Axularek zionez” (1970b, 213. orr.).

Euskararen barne egokitzapenaren prozesuaz eman ditugun xehetasunei amaiera eman aurretik, Koldoren ikuspegi baikorra ezin isilpean utziko dugu. Hitzok erabatekoak dira zentzu horretan.

“Gehiegikerietan erortzeko arriskurik gabe, lehen aldiz historian, egitekoaren larriaz ohartu garela esan daiteke eta beronek dakartzan eskakizunak onartu ere ditugula” (1978 b, 44. orr.).

Mitxelenaren ustez, bada, euskararen lanketa eta baturatze bidean urrats erabakikorrek eman dira, inoiz inork gure herrian eman ez dituen neurrikoak. Arlo honetan euskarari sortu izan zaizkion oztupo larriak, larrienak bederen, gaindituak ikusten ditu berak: “hoy tenemos una lengua culta en la que podemos hablar de cualquier cosa”. 1981 inguruan Koldoren esanari bagagozkio, baturako bidean euskarak urratu dituen aitzinamenduak atzeraezinezkoak dira:

“En lo esencial está consolidada. Y la unificación ha tenido un éxito total en el país. Lo cual no quiere decir que no haya discrepancias”.

Alde honetatik balantzea aski pozgarria dela dirudi. Behar izanez gero, astrofisika ere irakasteko moduan gaude agian euskaraz, eta hizkuntz eredu bat, baturako hautatua, gailentzen ari zaie besteei idatz-ikaskuntzarako zereginetan. Baina euskararen harra etengabeko azpilanean ari denez, oraino ez dirudi segurtaturik dagoenik, ez euskararen iraupena eta jarraipena, baizik eta bere barne Osasuna. Itxura guztien arabera, euskararen barrunbeto baliabideen desgaste-higadura gero eta gogorrago da hitzunlegoaren aldetik; batipat erderen presioa etnik gabekoa denean, herriska bakartietan izan ezik.

“Lo que parece alarmante en nuestro caso, como indicio de una avanzada pérdida de autonomía, es la tendencia que se muestra con ostentación a la traducción, al calco, a la adopción pura y simple, sobre todo porque el internacionalismo que se suele alegar es la aceptación de la norma del *erdara*, entendido como *un erdara*, de nombre conocido. La obediencia se manifiesta sobre todo en léxico y fraseología, acompañada de una reverencia minuciosa a la morfología propia” (1984a, 652. orr.).

Mitxelenaren jarraitzaile baten deitura erabiliaz, hizkuntz interferentzia honi diglosia linguistikoa deituko genioke. Eta diglosia mota hau beste soziolinguistikoarekiko mendeko denez, haren efektutzat jotzea ez litzateke bekatu astunegia izango. Are gehiago, euskararen osasun soziolinguistiko orokorra determinatzen duten baldintza orokorrek eragingo lukete erdarakaden azpilan hori.

Don Karlos-ek, Koldok esango zukeen gisa, bere “Contribución a la crítica de la economía política” delakoan hizkuntzen arteko garapen desberdintasunari buruz hauxe idatzi zuen: “... Si los idiomas más perfeccionados tienen leyes y caracteres determinados que son comunes a los menos desarrollados, precisamente lo que constituye su desarrollo es lo que les diferencia de estos elementos generales y comunes”. Atal honetan planteaturiko problematikaren laburpen-muin bezala, ez dator hain gaizki azken aipu hau. Izatez hizkuntzen berezko tasunak egoera historiko guztietarako baliagarriak izan badaitezke ere, axola dioena ez da hori. Axola zaiguna, gurekiko ari naiz orain, euskara, ekoizpen soziala den bezanbatean, prozesu historiko-sozialari ongi egokitzea eta taxutzea da “atzeraturik” ez geratzeko. Ekoizpen honen alderdi bat, Koldok azaldu legez, aski trebatu dago zernahitarako ere: bera izan genuen gainera, eta hau ezin da ahantzi, alderdi honen gidaritza markatu zuena. Ibon Sarasolaren hitzetan esateko, hau guzti hau zor diogu standardizazioaren arloan euskalari eta euskaltzaleari:

“... Mitxelenari zor diogu Euskaltzaindiaren batasun-ereduaren euskarri teorikoaren lantze sendoena, abiapuntu bezala berak hainbestetan errepikatu zuen harako «hizkuntza bat, gure nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpide besterik» hura hartzen duena, eta era askotako argudioz, hitzunen gizarte-pisuari dagokionaz ahaztu gabe, hornitzen dena”<sup>16</sup>.

## Status plangintza: hizkuntz normalkuntza eta lege-barrutia

Teoria soziolinguistikoaren uztardura taxutzen duten kontzeptu eta ideien zentzu zehatza behar bezala finkaturik eta garaturik ez egotean, nahasbide ez txikiak sortzen zaizkigu noiznahi. Hizkuntz plangintzaz ari garenean, ez dakigu zehatz-mehatz, sare teoriko horren barrenean zer-nolako kokagunea duten standardizazioak, edo *corpus* plangintzak, edo status plangintzak, edo glotopolitikak, edo... Plangintza eta normalizazioa, hona beste katramila hondarga-



bea. Zer da normalizazioa? Zer hizkuntz berreskurapena? Itaun larregi, ihardespren ahobete-korik idoro ahal izateko.

Euskal Herrian, gai hauetan, inoiz inork egin duen lanik oparoenetakoa, joriena eta lan-duena ez bada, "Txepetx"ek burutu izan du, bere "Un futuro para nuestro pasado" delako liburu mardul bezain irakurgarrian. Baina hor ere, oinarriko kontzeptuok ez bide daude, zenbaitek nahi lituzkeen bezain zorrozki eta sakon adieraziak. Hona, besterik gabe, I. Larrañagaren zalantzaren lekuko bat.

"Nire ustez, puntu eztabaigarriak dira hemen agertzen direnak. Izan ere, puntu hauek irakurtzerakoan ateratzen den inpresioa, zera da: Hizkuntza Plangintza eta Normalizazioaren arazoa ez ote den boluntarismo baten baitan ipintzen, eta ez ote den behar adina kontutan hartzen hizkuntzak, gertaera soziala denez, bere mekanismo propioak dituela eta mekanismo horien artean Txepetxek aipatu dituen hizkuntz tipologiaren positibizazio eta optimizazioa burutuko bada, hizkuntza minorizatu, zapaldua eta menpean daukan agente politikoaren eragina ere kontutan hartu behar direla, ezin bait da hizkuntza bezalako gertaera sozial bat agente politikoaren eraginetik kanpo pentsatu ere"<sup>17</sup>.

Ur sakonetan barrena abiatzea dela dirudi honek. Eta hor, argibide teoriko zorrotzik gabe, galdu gabe ihardutea, ez da batera erraza. Hobe dugu, beraz, teoriko adituen esku uztea, halako lekuetara baino lehen, argibide izpirik guregana dezagun. Cobarrubiasek bi katalanotan ahotan ipintzen dizkigu zenbait gauza ikasgarri.

"Por otra parte también cabe preguntarse si la normalización representa una tarea distinta que la de estandarización. Es decir, si la normalización requiere más de lo que requiere la estandarización. O si en realidad se trata de conceptos similares, y el uso del término normalización es simplemente redundante. Para poder responder a estas preguntas veamos algunas de las ideas sobre el concepto de normalización.

Aracil y Ninyoles son dos de los autores, entre otros, que han comentado sobre el concepto de normalización. Aracil (1965, 1982 : 182) en un artículo que no ha tenido circulación amplia hasta fecha muy reciente ha sostenido que la normalización consiste en reorganizar la lengua para poder readaptar las funciones sociales y necesidades de la lengua a las condiciones "externas" cambiantes. En esta concepción son pues las condiciones sociales las que requieren la normalización. Por esta razón Aracil piensa que una normalización verdadera no depende jamás de aspectos puramente lingüísticos. Y contrariamente a lo que se cree el reajuste interno del sistema lingüístico no es más que el blanco de la normalización. Por esta razón, para que la normalización sea eficaz, se requiere o bien la soberanía política o al menos un grado substancial de autogobierno de la comunidad lingüística en cuestión. Es decir supone el ejercicio del poder"<sup>18</sup>.

Hemen Aracilen proposamenak jasotzen ditu Cobarrubiasek. Eta haren ustetan, hizkuntzaren erabateko normalizazioa bere baliabide linguistikoak trebatzea baino askoz ere gauza konplexuagoa dela jakin erazten digu. Katalanaren tesiaren muina zertan den azaldu behar bagenu, honelatsuko zerbait esatera ausartuko ginatke: hizkuntz normalkuntzaren matriza hizkuntz boterearen harreman-sarean kokatzen ez den heinean, normalkuntzarako eredu guztiek golpe huts egingo dutela goizago nahiz beranduxeago. Normalkuntzaren barneko kontzeptuen mugarriztapen saio honetan, utz diezaiogun ostera Cobarrubiasi hitza, zerk zer aditzera ematen duen jakin dezagun.

"No cabe duda de que tanto la estandarización como la normalización requieren potenciar la lengua. La cuestión es si la potenciación que se espera como resultado de la normali-

zación es mayor que la que se espera como resultado de la estandarización. El énfasis que la normalización pone en la igualdad de status y en la potenciación de todas las funciones de la lengua puede ser la clave para encontrar diferencias, si las hay, entre estandarización y normalización”<sup>19</sup>.

Mitxelenak arlo jakin honetan argitaratu dituen asmo eta usteak jakin aurretik, merezi du ondoko testu-apur hau hona aldatzea, Fishmanen erabateko iritzi hau itzalpean gera ez dadin. Hona bere laburrean, zein trinko ageri zaigun epaia: “Status-plangintzarik gabe corpus-plangintzan jardutea hizkuntzalari ergelen joko hutsala den bezalaxe, ...”<sup>20</sup>.

Bitxia badirudi ere, Koldori gehien atsegin izan zaion egitama, olerkariak itxuratua izan da.

“Ene ustez, behiala esan nuenez, honen (Lizardiren) «Eusko-bidaztiarena» izan da gaurdaino gure artean egin den hizkuntz egitamurik osoena, eta irakurri ere dut nonbait honi buruz ironiazko idazlanik. Nere hartan jarraitzen dut hala ere: hitz hegodunena gorabehera, hortxe ditugu hitzez hitz ondoan opa diren helburu eta jomugak” (1978 b, 38. orr.).

Ezin hasiko gara olerki-zati guztiak hona aldatzen, baina ezinbestean, oroigarri legez, hainbeste aldir gureganatu den “Oro-mintzo” ez dugu baztarrean utziko.

“Baña nik, izkuntza larrekoa,  
nai aunat ere noranaikoa:  
yakite-egoek igoa;  
soña zaar, berri gogoa;  
azal orizta, muin betirakoa”.

Euskararen gizarte-normalkuntza bihurgune eta behaztoparri erraldoiz josirik dagoela uste du Koldok. “Esperimentu larri batekin” hasi garelakoan dago. Eta, gutxienez, burubideok egiten ditu bere aldetik.

“Bi gauza eskatuko nizkieke, haatik, auzi horietan esku eta iritzi duten guztiei. Lehenbizikoz, gurearen neurriko hizkuntzak neke eta istilurik aski baduenez gero bizi-rik iraungo baldin badu, gure helburuak eta jomugak zehazki finka ditzagula, norainoko asmoetan hasiak garen gogoan eduki dezagun. Bigarrenez, berriz, eta besteren buruan ikasi beharko dugunez gero, saia gaitetzela bestetango berriak diren bezalatsu azaltzen, eta ez ipuin edo exenplu gisa” (1981 a, 118. orr.).

Euskararen normalkuntz bideak malkarrez beterik daudenez, pausarik gabe, baina presarik gabe urratzea gura luke Koldok. Ez baitu uste ibilbide hori itsumustuan mami daitekeenik.

“Pretender que un país pequeño, hasta ahora culturalmente indefenso, más bien maltratado, va a solucionar el problema de su lengua a todos los niveles de la noche a la mañana, sin un plan gradual, racional y coherente es una tontería muy peligrosa” (1981 d, 36. orr.).

Aribide zuhurretan barrena ihardutea nahi luke. Dirudienez, Salabururen “zentzu komuna” da gidari bere pentsabideetan. Nafarrak hauxe idatzi berri du: “Zentzu komunak eragiten zion ere elebitasunaren arazoetan: zenbait jendek nahiago du, nonbait, goizik jeiki goizago argituko duelakoan agian. Honetan ere berak argi aski ikusten zuen hobe dela pausuz pausuz joan, arazoak bortxatu gabe”<sup>21</sup>.

Nolanahi ere den, egia da goiztiar horiekiko bere kezkek azaldu zituela behin baino gehiago. Boluntarismoaren burugabekeria salagai izan du, erdaraz nahiz euskaraz.

“Agian, gure artean hain errotua dagoen boluntarismoaren arriskua salatu beharrean gara, nahikunde hutsa helburuetara iristeko nahikoa bailitzan. Ez ditut ukatuko utopiaren ondorio miresgarriak, batzuk begien aurrean baititut. Nahiago nuke, ordea, bada ezpada ere, ezer egingo bada beti beharrezkoak diren ametsak eta berotasun suharrak lagun eta aintzindari kalkulua izango balute, eginahalean zehaztuz zeren bila gabiltzan, zein urratsetan lortuko dugun, eta nolako bitartekoak ditugun esku-menean orain eta etorkizunean” (1978 b, 45. orr.).

Eta noren egitekoa da hizkuntz plangintzaren nondik-norakoak diseinatu eta ezartzea? Plangileak tekniko hutsak izango dira, edota politikarien esku egon behar luke azken hitza?

“Buscar condiciones más favorables, hacer por sacarlas de la nada si es necesario, será menester de planificadores del presente y del futuro, en otras palabras, de políticos en el sentido más amplio de la palabra”. (1978c, 197. orr.).

Hizkuntz plangintzaren premia begien bistakoa izanik, euskararen egoera orokorrean datzan hizkuntzarentzat, hala-holako baliabide teknikoek gain, besterik ere beharko da, inondik ere. Besterik horretan, oraingoz, status legalarekin hasiko gara: nolana hiko hizkuntza bati, dagoenean dagoela, babes juridikoa noraezekoa bait zaio egun. Horretan dago Mitxelena.

“... Siempre, y hoy más que nunca, una lengua necesita para sobrevivir una adaptación interna a condiciones concretas de vida social, pero también ciertas facilidades legales. Hoy más que nunca, porque el ámbito de lo legal va quedando definido por lo que está sancionado positivamente («¿Tiene usted autorización, permiso?»), no por lo que ha sido prohibido expresamente. Pretender que se desea que una lengua viva o que nos es indiferente que esa lengua viva o no, si se le impide de hecho el acceso a ciertos medios de difusión, es una postura insostenible, ya que en el mundo actual ese acceso es una condición necesaria, aunque no suficiente, para la supervivencia” (1974a, 187. orr.).

Inork uste lezake baldintza juridikoen ezarbidea Estatu modernoaren egitekoa dela eta, horrenbestean, arestiko gauza. Usteak oinarriak badu ere, ez da atzo goizeko kontua Koldok ederki jakin erazten duen bezala. Hona agerbide legez, zenbait datu ohargarri.

“Las decisiones legales en materia de lengua no son, ni mucho menos, de hoy; basta recordar el año 610, en que el imperio de Oriente abandonó, juntamente con el latín, la ficción de un imperio romano unitario; o el edicto francés de Villiers-Cotterets (1539). También se suele citar, por su importancia práctica, una de las resoluciones del conflicto de Tours (813)” (1974a, 187. orr.).

Hizkuntz legeriaren aintzinasuna egiaztatu ondoren, bada beste puntu bat, Koldoren iritzirako, askorentzat sinisgaitza omen dena. Hizkuntzen ofizialtasunaz dihardegu. Izan ere, Europako panorama begiztatzen bada, hor hizkuntza ofizialen kopuruak gora jo du azken mende honetan.

“Pero, aun descontando el latín, no es exacto que las grandes lenguas modernas hayan ido eliminando, en un proceso cada vez más rápido, a sus competidores más débiles. Bien al contrario, el número de lenguas oficiales en Europa ha crecido, y mucho, en lo que llevamos de siglo: no disminuido. Alguna vez (y es más cortés no ser explícito), la oficialidad ha quedado en deseo más que en realidad; pero ésta es la excepción, no la regla” (1974a, 184. orr.).

Estatuaren jabe egin diren herriek beren eskuko dute delako hizkuntza ofizial hori; horrenbestera iritsi ez diren bakan batzu ere nolabaiteko ofizialtasun gradura heldu bide dira, halako edo bestelako botere politikoren baten babesean. Zer gertatu zaio ordea euskarari beste askoren zoria ez edukitzeko? Aukera hori, status ofizialaren jabe izatekoa alegia, bizpahiru aldiz izan ornen du, baina abagadune egokirik ez zuen izan nonbait ez batzutan ez bestetan. Hona aurreneko biei buruz Koldok zer iritzi zuen. Nafarroako erreinutik hasi behar, noski.

“El reino de Navarra, la creación política más importante de Vasconia, siguiendo como no podía menos el uso general de Occidente, empleó el latín como única lengua escrita. Más adelante, cuando éste empezó a dejar paso en todas las partes a las lenguas vulgares, se recurrió al romance y no a la “lingua Navarrorum” o “basconea lingua” de los documentos. No es difícil ver por qué. El romance era la lengua exclusiva de algunos navarros y otros lo conocían; el ejemplo de los países vecinos y su misma proximidad al latín facilitaba su uso escrito. Nada favorecía al vascuence, lengua aislada y sin cultivo literario, a no ser la presencia de una masa de individuos unilingües, que debemos suponer muy crecida en algunas regiones. Por desgracia, no formaban parte de los grupos más influyentes del país.

La acesión del vascuence a lengua escrita pudo haberse producido también, como señala muy bien Lacarra, en el momento de la cristianización del país. Pero, aun prescindiendo de la época precisa y de las circunstancias de la plena cristianización, que muchos se inclinan a creer tardía, las condiciones no eran tampoco favorables” (1960 b, 12. orr.).

Euskaldungoa, batzutan arrazoi batzuzengatik, bestetan besterengatik, ez zen bere hizkuntza ofizialtzeko gai izan. Hizkuntza ofiziala P. Bourdieu-ek dioenez, Estatuari atxekirik erai ki da, eta hari zor dio bere izatearen funtsa eta arrazoia. Hori ote da euskararen zori gaiztoa esplikatzeko lukeen azken giltzarria? Ondoko pasarte honek horrelakorik pentsatzea ez dela batere zentzugabekeria iradokitzen digu.

“La lengua oficial se ha constituido vinculada al Estado. Y esto tanto en su génesis como en sus usos sociales. Es en el proceso de constitución del Estado cuando se crean las condiciones de la creación de un mercado lingüístico unificado y dominado por la lengua oficial: obligatorio en las ocasiones oficiales y en los espacios oficiales (escuelas, administraciones públicas, instituciones políticas, etc.), esta lengua de Estado se convierte en la forma teórica con que se miden objetivamente todas las prácticas lingüísticas. Se supone que nadie ignora la ley lingüística, que tiene su cuerpo de juristas, los gramáticos, y sus agentes de imposición y de control, los maestros de enseñanza primaria, investidos de un poder especial: el de someter *universalmente* a examen y a la sanción jurídica del título escolar el resultado lingüístico de sus sujetos parlantes”<sup>22</sup>.

Erabateko euskal aginterik inoiz izan ez badugu ere, luzaz bizi izan da Euskal Herriaren alde bat gutxienez, autonomia politiko zabal baten gerizpean. Zer suertatu zen orduan aginteari darion babes ofiziala euskarari ez iristeko? Koldoren esanei bagagozkie, orduan ere legea goran eta euskara “beheraka”.

“Geurezko genituen eskubideak ez ziren (sekula, beharbada) etxeko hizkuntzaren alde erabiliak izan, gorengo gobernu mailan behintzat. Gure arbasoek ez zuten, halaz guztiz, gogor hartu hizkuntza, nik axalekotzat jotzen ditudan kasu batzuetan bai zik. Ukatu izan didate hori horrela zela, baina lehengoan irauten dut eta irauango, aski den adinako kontrako frogarik erakusten ez didateino. Arrazoizko dirudi inolaz ere, jokabide egokiagoa izatea, nahiz sendagarria ez izan, etxeko gauzak antolatzeako sen-

bait esku geneukaino, ondoren ezagutu duguna baino, eskubideak eskualdatu ondoan kanpotik gero eta kaltegarriago etorri zaiguna baino, alegia. Azken finean, zergatik eta hargatik, geuregandikako legeekin ibili da euskara beheraka” (1983a, 51. orr.).

Euskararen status juridikoa, azkenean, azken gerratean aldatu zen; gerrak ekarri zuena gerrak eraman zuen ordea, eta esperientzia gisa hartzeko ere ez digu balio izan gerorako. Honela gogora erazten digu Mitxelenak epealdi labur hori.

“Egoera honek, bistan da, badu ikuskizunik euskara sekula hizkuntza ofiziala ez izatearekin, 1936-37 epe laburrean, noski, izan ezdik, orduan Eusko Jaurlaritzak beste-larria erabaki zuenez gero. Garbi dago, epearen moztasunez gainera, orduko egoera larria ez zela aproposena zinetako ofizialtasuna egiazki finkatzeko, Bilboko sendagintzako fakultatearekin gertatu zen bezalaxe” (1978 b, 26. orr.).

Legeriaren aldetik euskarak jasan duena, aterperik ezean efektu juridikoak sufritu egin bait dituzte hizkuntza minorizatuak, honetan lagako dugu. Ez haatik gauzatxo bat; Koldoren aholku hau guztiok aho batez onartuko dugu, nahiz eta lilurapen juridikoetan galtzen denik agian egon oraino baztarren batetan.

“Ezin fida daiteke —zenbaitek, areago erosokeriaz beste ezertaz baino, egiten duen bezala— dekretuaren ondorio miresgarrietan, ez ofizialkidetasun nahiz ofizialtasunezko aitopenetan” (1978 b, 45. orr.).

Hizkuntz plangintzaz, normalkuntzaz eta statusari buruz ihardun duguneko orrialdeok bo-borbiltzea, berriro ere Cobarrubiasen esku utzi nahi genuke. Bera izan baita (1987) auzi hau euskararekiko zertan den aztertu duenetariko bat, eta kanpotik egindago ikerlanaren ispilu hotzak, agian barruko grina suharren arriskurik gabe hautematen ditu kontraesanak. Goazen bezar dioenaren berri jakitera.

“Un estudio comparativo mostraría que está haciendo considerable trabajo en la planificación del Ambito Legal del Euskera si bien aún falta mucho trabajo por hacer. Algo parecido se puede decir en el caso de la Administración y la Educación aunque en estas áreas hay aún mucho más trabajo por hacer que en el Ambito Legal. Aún se necesita lograr mayor efectividad en los modelos utilizados en educación, desarrollo en el área de educación superior, etc. Es decir hasta aquí hemos seguido la fórmula belga pero los resultados no son comparables. Tampoco lo es en el tiempo, esfuerzo y costos invertidos en la empresa de planificación. Donde las cosas resultan realmente diferentes es cuando miramos a la próxima función, es decir al Comercio y la Industria. Excepto algunas manifestaciones aisladas como es el caso de la Caja Laboral y su iniciativa de introducir el Euskera en su esfera del mundo laboral, la función del Euskera en el Comercio y la Industria es hoy por hoy insignificante. La carencia de uso del Euskera en esta función permite vislumbrar la magnitud del problema y de la tarea a realizar en pro de la normalización. La legislación pertinente en esta área está aún por formularse y ha sido en general un área, que a pesar de la importancia que tiene para la normalización, ninguna de las distintas legislaciones de normalización existentes en nuestro medio ha tomado siquiera en cuenta la necesidad de legislar sobre esta función tan importante”<sup>123</sup>.

## Gltopolitika edo hizkuntz politikaren eskuharmena

Mackey-k eta dioten legez, hizkuntz arazoan aitzin-gibelak agintaritzatik bideratzen dira alde batera edo bestera: “Estas decisiones sobre los objetivos lingüísticos de la educación, así como las decisiones sobre planificación lingüística de un país, son decisiones políticas que como todas las decisiones políticas han de apoyarse en un consenso social que no siem-

pre es fácil de alcanzar<sup>24</sup>. Hizkuntzen nondik-norakoa determinatzen deneko gunea botere politikoaren barneko gaia baldin bada, jakin beharrean gaude gune horretarik nolaz eta zertaz interbenitzen duen hizkuntz gaietan delako botere politiko honek. Horretarako jaiotzeaz da goen disziplina baten berri dakarkigu Cobarrubiasek, gizarte zientzien baitan kokaturik eta bere autonomia aldarrikatuz dator, etorri ere.

“El nuevo enfoque abre las puertas al estudio de una problemática sobre la cual tenemos conocimientos inadecuados. En verdad abre las puertas a lo que podemos concebir como una nueva disciplina autónoma entre las ciencias sociales: *la glotopolítica*.”

Así como la sociolingüística estudia las relaciones entre variación lingüística y contexto social, la *glotopolítica* estudia las relaciones entre lenguaje y contexto sociopolítico. Por ejemplo el reconocimiento oficial o co-oficial de lenguas minoritarias o minorizadas no se da sin una serie de preconditionamientos en la estructura política de la comunidad. El reconocimiento de derechos lingüísticos de grupos inmigrantes, o grupos oprimidos tampoco se logra si no está garantizado por acción legislativa apropiada, y si no existe un marco ideológico y político que lo permita. El tipo de correlaciones que la glotopolítica establece entre lenguaje y contexto sociopolítico tiene las características, y dificultades, que tienen las generalizaciones de las ciencias sociales. La *planificación lingüística* pasa a ser una subdisciplina de la *glotopolítica* al menos en lo que atañe a la planificación del status. La planificación del status, según creo, está a la base y constituye la guía permanente de la planificación del corpus<sup>25</sup>.

Barruti teoriko honen argitan ea ulergarriagoak egiten zaizkigun Mitxelenaren adierazpekinak. Hizkuntzen zoria, jakina denez, ez da inoiz pentsatu bezala, norabide naturalak berez erabakitzen duen joera, halako eta honelako praktika linguistikoaren emaria baizik. Praktika horren mamikuntzarako bitarteko eta ahalmenak delako botere publikoaren baitarik sortzen dira: hots, Estatuaren interes linguistikoa gorpuzten duten gizarte-klase nagusien eskuko dauden orotariko erakunde eta aparatuen erakuntzatik. Baina, aldeak alde, funtsean zertara mugatzen dira hizkuntz politikaren ereduak? Mitxelenak idazlan anitzetan izkiriatu du gai honi buruz eta, batzutan nahiz bestetan, orohar ondoko eskema honi jarraitu izan zaio gehienbatean. Hiru dira, hiru, hizkuntz politikaren lerro nagusiak, xehetasunetan sobera bameratu gabe. Hara, zeintzu.

“También son tres las actitudes que pueden tomar los poderes públicos ante problemas de este género, y son, como las ha definido HEINZ KLOSS, de represión, de tolerancia y de promoción. La represión, que ha llegado en algún caso extremo a la prohibición de hablar una lengua (la prohibición de escribirla, de emplearla como vehículo de enseñanza, etc., ha sido siempre mucho más frecuente), es una actitud que parece estar en clara regresión en estos últimos tiempos. La tolerancia, el *laissez faire* - *laissez passer* en materia de lengua, ha sido siempre, y es todavía hoy probablemente, la política más practicada. Sus resultados no son malos, a corto plazo por lo menos, a juzgar por una larga y varia experiencia. Hay dos puntos, sin embargo, que han de ser tenidos en cuenta al enjuiciarla. En primer lugar, esta política, como el liberalismo económico, es una manera tan eficaz como cualquier otra —más eficaz en realidad, puesto que supone omisión, no una acción con cuya responsabilidad alguien tiene que cargarse favorecer a unas lenguas y de postergar a otras: es, por lo tanto, una política, no una falta de política. Exige además, para ser oportuna, una actitud de aceptación por parte de la población afectada; que la aceptación sea entusiasta, indiferente o tristemente resignada, tanto da” (1974a, 187. orr.).

Estatu modernoaren aldetik ezartzen den hizkuntz politika hori, ezta ez, atzo goizekoa. Erro luze horiek gutxietsi gabe, egungo egunean are larriagoa suertatzen da eskuharmen ho-

ri; ez soilik mendealdean, joera hori ez baita errejimen politiko edo sistema politiko hutsetara murriz daitekeen gertakaria. Aldez edo moldez, “moderno” deiturapean ezagutzera ematen ditugun Estatu-erakunde gehien, ia den, salbuespenak hutsaren hurrengoak izango dira, ezaugarria da. Aztergai dugun Estatu mota hain sakon eta zabal ikertu duen N. Poulantzas-en azalpentxo honek zerbait baino gehiago lagun diezaiguke seguruenik jazotzen ari dena ulertzen: “Interviniendo crecientemente en todas las esferas de la realidad social, disolviendo el tejido social tradicionalmente «privado», ese Estado se filtra en las redes más capilares y penetra más tendencialmente en los sectores de poder, (...) la penetración del Estado en los dominios llamados de consumo colectivo (transportes, vivienda, sanidad, asistencia social, ocios) —donde los poderes ideológicos-simbólicos materializados en las producciones (casas, centros culturales, etc.) prolongan directamente las relaciones estatales—”<sup>26</sup>.

Jadanik baliogabeak geratu zaizkigu Estatuari buruzko ikuspegi zaharkituak. Erakunde-botere hori ezin baita atzeman “kanpotik” ezarrita eduki dezakegun iharduera-mekanismo gisa; bere harremanen sarea mendi muturrik muturreraino sartu da, eta sukalde-zoko guztiak astindu ditu inork inoiz pentsa ez zezakeen eran. Lehendabiziko zantzuak, trenarenak eta beste, aspalditxo hasi ziren somatzen euskaltzaleak; bazetorrela zerbait, geldi ezinezko zerbait alegia, noranahi aldentzen delarik ere, bere baitara irentsiko gintuena.

“Honen lekuko ditugu Domingo Agirrek Garoa-n Joanesen ezpainetan ipintzen dituen gogoetak, erdi egia erdi alegiazko trena dela eta: berau aurreratu ahala, batek mendi tontorretan izkutatatu beste biderik ez du; mendiek, ordea, ez dute trena gela-razten, behar izanez gero satorrak bezala zulatu ere egiten baititu. Gero eta gorago ihesi goaz, jakinik ere asko igoagatik azkenean harrapatu eta lekutuko gaituela” (1978 b, 37. orr.).

Koldo hizkuntz eskuharmenen areagotze neurrigabeaz oharturik dago Estatuaren alde-tik. Hizkuntza nagusiak eta hizkuntza menderatuak daude, eta jerarkizazio hori ez da izan iraxoren baten lana. Azpitik eta gainetik hizkuntz politikaren lerro nagusiak gauzatu dira, eta ondorioak begien bistan daude ikusi nahi dituenarentzat.

“No es que la idea de intervenir en la marcha de los procesos lingüísticos, de planear y dirigir una política en este terreno, sea cosa de hoy, ni muchísimo menos. Pero, si la idea y la intención son muy antiguas, los medios de que ciertos entes disponen han crecido de tal manera que, por acción y por omisión, sus proyectos son cada vez más eficientes. De ahí se sigue que en España, en Francia o en la Gran Bretaña la lengua dominante, en relación con la cual se define la condición de las demás, esté definida sin confusión posible. En otros países, así en casi todos los americanos, las lenguas indígenas, no coloniales, parecen no existir al menos en el mundo legal, puesto que se diría que nadie se ocupa de ellas, ni siquiera para darles de lado” (1978c, 196. orr.).

Hizkuntz politikaren harian dihardugunez, hizkuntzak bere iraupenerako indar politikoen beharrik ba ote zuen galdetu zioten hil baino egun batzuk lehenago. Ipın dezagun galdera eta guzti.

“Argia.-Iruditzen zaizu marko politiko minimo bat ez duela behar gaur egun euskarak gerora begira?

Mitxelena.-Bai, bai, bai. Orain, kontua da markoa finkatu behar bagenu, ez da-  
kit, beharbada zail litzateke, baina nik dudarik gabe uste dut hizkuntzak irauteko be-  
har duela indar politikoa edo. Hor konforme naiz, zeharo, erabat” (1987a, 30. orr.).

Elkarrizketa horretan bertan, beste gai frankori buruz hitz egiten du Koldok. Halako batean, galderak hartarako bide emanik, Eusko Jaurlaritzaren politika linguistikoa ere ikutzen du. Jakingarria da iritzi hau, eta ez soilik bere azkenekoa izan zelako auzi honen inguruan. Aldekoak eta aurkakoak daudela eta, zera diosku.

“Nik badakit zenbait jendek Eusko Jaurlaritzari egozten diola ez duela euskararen alde behar hainbat jokatzeko. Hori gaur eta bihar eta etzi irakur daitekeen gauza da. Konforme. Gainera, beharbada egia da. Beste alde batetik edozeinek irakur dezake edozein lekutan zenbait jendek gobernuari egozten diola gehiegi eskatzen duela euskararen aldetik. «Que no hay derecho que mi hijo por unos exámenes no pueda pasar...». Hori edozeinek ikusi du nik bezala. Bidea non dago hor? Gobernuak egiten duen guztia ontzat ematen dutenen aldetik ala besteen aldetik? Hau da, guk, eta guk esan nahi du ez... Herri Batasunakoak edo ni ez naizen PNV-koek edo besteek edo besteak pentsatzen dutena, baizik eta hori da guk Euskal Herri bezala dugun problema, eta hori da guk erabaki behar genukeena. Beraz, hori da. Nere ikuspuntua ez da oso argia gai honetaz, hori konprenitzen dut. Nahiago nuke argiagorik izan baina ez dut ikusten” (1987a, 31. orr.).

Euskararen aldeko neurriak hartzerakoan erne jokatu behar dela gomendatzen du. Halako edo honelako xede politiko batzuren mirabe euskara ipintzea, barkaezina iruditzen zaio: “una insensatez pura y simple, si no es un crimen contra el país”. Ahal den neurrian, gatazka alferrik gabe, inolako tirabira galgarririk gabe, jokatzeko aldekoa da. Ez du uste, bestalde, inolako hizkuntz ezarpen gogorrik mesedegarri izango litzatekeunik: Irlandako lagun baten aitopenetan oinarritzen da, besteak beste, argudio hori sustengatzeko.

“Yo lo que sí puedo hacer es recordar y citar lo que un día me dijo el señor Myles Dillon, que era director del *Dublin Institute for Advanced Studies*, y hermano del jefe de la oposición... Este hombre, cuando estuvo aquí hace muchos años, se pasaba el tiempo preguntando si éste o aquél sabía euskera, y llegó a la conclusión de que estábamos mucho mejor que ellos. Y entonces, la última cosa que me dijo fue lo siguiente: ustedes, dentro de pocos años, pueden encontrarse en una situación política favorable; pues bien, pase lo que pase, no impongan la lengua por decreto... Y esta opinión, que puede fastidiar a mucha gente nuestra, provenía de la experiencia...” (1981 d, 38. orr.).



- Oharra: Koldo Mitxelena-ren testuetarik harturiko aipuen oinean ipini den orrialde-zenbakia zerrenda honetako bigarren argitalpenari dagokio, "Orobat" hitzaren jarraian datorrenari alegia. Hauek esku-rakoiagoak dira, izan ere.
- 1951a: *Euskal literaturaren etorkizuna*, EGAN (3), 17-21 or. Orobat "Mitxelena-ren idazlan hautatuak", Etor, Bilbao, 1972.
- 1954a: *Problemas teóricos y prácticos de la lingüística vasca*, "Munibe VI", 1954, pp. 194-209. Orobat "Sobre historia de la lengua vasca", Anejos ASJU 10, Donostia-San Sebastián, 1988.
- 1956a: «*Eusko-Gogoa*» eta «*Euskera*», EGAN (5-6), 157-163. or. Orobat "Mitxelena-ren idazlan hautatuak", Etor, Bilbao, 1972.
- 1960a: *Asaba zaharren baratzta*, EGAN, 1960 (3-6), 121-134 or. Orobat "Mitxelena-ren idazlan hautatuak", Etor, Bilbao, 1972.
- 1960b: *Historia de la literatura vasca*, Ed. Minotauro, Madrid, 1960.
- 1964a: *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Ed. Auñamendi, San Sebastián, 1964.
- 1968a: *Euskararen batasun bideak*, (Arantzazuko txostena), EUSKERA, 1968, 203-219. or. Orobat "Mitxelena-ren idazlan hautatuak", Etor, Bilbao, 1972.
- 1970a: *Adiitz batuz*, (Baionako txostena), "Mitxelena-ren idazlan hautatuak", Etor, Bilbao, 1972.
- 1970b: *Pro domo*, EGAN, 1970 (1-3), 11-26 or. Orobat "Mitxelena-ren idazlan hautatuak", Etor, Bilbao, 1972.
- 1971a: *Lengua y cultura*, "I Semana de antropología vasca", Bilbao, pp. 307-330. Orobat "Lengua e historia", Parainfo, Madrid, 1985.
- 1971b: *Notas sobre las lenguas de la Navarra medieval*, "Homenaje a Don José Esteban Uranga". Pamplona, 1971, pp. 199-214. Orobat "Palabras y Textos", Euskal Herriko Unibertsitatea, 1978, Gasteiz.
- 1972a: *Mitxelena-rekin elkar hizketan*, Zeruko Argia, 1972-6-4, 1. or. Orobat "Euskal idazlan guztiak IX" (Artikuluak eta beste II), Klasikoak-29. 1988.
- 1972b: *Zenbait hitzaldi*, Etor, Bilbao, 1972.
- 1974a: *Las lenguas y la política*, "Boletín informativo de la Fundación Juan March"-en argitaratua, eta baita "Doce ensayos sobre el lenguaje"en ere, Madrid, pp. 119-137. Orobat "Lengua e historia", Parainfo, Madrid, 1985.
- 1974b: *Hablando con los vascos*, Martín Ugalde, Ed. Ariel, Barcelona.
- 1975a: *Sei idazle plazara liburuari buruz*, Anaitasuna, 1975-1-15. 8. orr. Orobat "Euskal idazlan guztiak VIII" (Artikuluak eta beste), Klasikoak-28.
- 1977a: *Jaioko dira berriak*, Deia, 1977-6-8, 2. orr. Orobat "Euskal idazlan guztiak VIII" (Artikuluak eta beste I), Klasikoak-28, Donostia, 1988.
- 1977b: *Unibertsitatea eta irakaskuntza gure artean*, JAKIN-1. Donostia.
- 1977c: *Koldo Mitxelena*, Eugenio Ibarzabal, Erein, San Sebastián.
- 1978a: *Arantzazutik Bergarara*, Euskera (1978), 467-477. or. Gero SHLV-n. Orobat "Euskal idazlan guztiak VII" (Hizkuntzalaritzaz II), Klasikoak-27. Donostia.
- 1978b: *Euskararen bide luze bezain malkarrak*, "Euskararen liburu zuria", Euskaltzaindia, Bilbo, 15-28. or. Gero SHLV-n bilduma. Orobat "Euskal idazlan guztiak VI" (Hizkuntzalaritzaz-I), Klasikoak-26, Donostia.
- 1978c: *Sobre bilingüismo*, "Estudios y trabajos del Seminario Llingua Asturiana", 1978, pp. 29-36. Orobat "Lengua e historia", Parainfo, Madrid, 1985.
- 1980a: *Identidad vasca. ¿Recuperar qué?*, MUGA, n.º 10 - Octubre 1980.
- 1981a: *Laburpena*, "Perspective de recherches futures". Iker-1 (Bilbao, 1981). 425-426. or. "Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak". Orobat "Euskal idazlan guztiak VIII" (Artikuluak eta beste), Klasikoak-28, Donostia.
- 1981b: *Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak*, "Euskal linguistika eta literatura: bide berriak", Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, Bilbon, 1981 an.

- 1981c: *Perspective de recherches futures*, "Euskalerrien nazioarteko jardunaldiak", Euskaltzaindia, Bilbo 1981. Iker-1, pp. 417-426. Orobat "Sobre historia de la lengua vasca-II", Anejos ASJU 10, 1988, Donostia.
- 1981d: *Koldo Mitxelena*, MUGA n.º 13, Febrero, 1981.
- 1982a: *Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco*, "El bilingüismo: problemática y realidad", Revista de Occidente, Núms. 10-11.
- 1983a: *Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1800)*, Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa, Bilbo 1983, 237-250. or. Gero SHLV-n. Orobat "Euskal Idazlan guztiak VI" (Hizkuntzalaritzaz I), Klasikoak-26, Donostia.
- 1983b: *Euskara nafar hizkuntza, Euskara heriotz bidean*, Nafarroako Euskal Herrian Euskaraz", Iruñako Requete Irratian izandako saiokak, 1983.go Apirilaren 11-tik 15-ra.
- 1984a: *Lingüística immanente y lingüística trascendente*, ASJU XVIII, 1984, pp. 249-266. Orobat "Sobre historia de la lengua vasca-II", Anejos ASJU, 10, Donostia-San Sebastián, 1988.
- 1984b: *Romanización y lengua vasca*, FLV 1984, XVI, pp. 189-198. Orobat "Sobre historia de la lengua vasca-I", Anejos ASJU 10, Donostia-San Sebastián, 1980.
- 1986A: *La lengua vasca*, "Ser Vasco", Mensajero, Bilbao
- 1987a: *Koldo Mitxelena* (Elkarrizketa), ARGIA, Euskal kulturaren Urtekaria-1987.

## BIBLIOGRAFIA

- 1.- Fishman, Joshua. *Sociología del lenguaje*, Ed. Cátedra, Madrid, 1979, 12. orr.
- 2.- Larrañaga, Iñaki. *Euskal sozio lingüistikaren egoera eta bide berriak*, JAKIN 42/43, 1987, Donostia, 8 eta 9. orr.
- 3.- Fishman, Joshua A. *Hizkuntz hedapena eta arriskuan dauden hizkuntzetarako hizkuntz politika*, JAKIN-48, 1988, Donostia, 13. orr.
- 4.- Aracil, Luis V.; Larrañaga, Iñaki. *Euskara gizarte bizitzan*, Tolosako Udala, Euskara Batzordea, Tolosa, 1984, 76. orr.
- 5.- Sánchez Carrión, José María "Txepetx". *Fundamentos para una teoría de la Territorialidad lingüística*, in "Hizkuntza minorizatuen soziologia", Ed. Tarttalo S.A. Donostia, 1986, 21. orr.
- 6.- "AITZOL", Ariztimuño, José. *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, Erein, Donostia, 1986, 226. orr.
- 7.- Siguán, Miguel; Mackey, William F. *Educación y bilingüismo*, Santillana/Unesco, Madrid, 1986, 51. orr.
- 8.- Euskararen politikarako oinarriak, Eusko Jaurlaritz, Euskararen Aholku-Batzordea, Gasteiz, 1983, 19. orr.
- 9.- Aracil, Lluís V. *La situación minoritaria: estructura, multidiscurso e historia*, (mekanografiatzko txosten), Universidad de Barcelona, 1982.
- 10.- Sánchez Carrión, José María "Txepetx". *Un futuro para nuestro pasado*, San Sebastián, 1987, 257. orr.
- 11.- Aracil, Lluís V. *La situación ...*, op. cit.
- 12.- Calvet, Louis-Jean, *Lingüística y colonialismo*, Ed. Jucar, Madrid, 1981, 68. orr.
- 13.- Joshua Fishman (elkarrizketa), Zutabe-15, 1987, Donostia, 90. orr.
- 14.- Cobarrubias, Juan. *Normalización y planificación lingüística en el País Vasco* (mekanografiatzko txosten), "Congreso Mundial Vasco", Seton Hall University, 1987, 25. orr.
- 15.- Ferrer i Gironés, Francesc. *La persecución política de la lengua catalana*, Cultura catalana contemporánea, XVII, Barcelona, 1985, 40. orr.
- 16.- Ikus Ibon Sarasolaren Aurkezpena: *Koldo Mitxelena, Euskal idazlan guztiak, VII*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988, 17. orr.
- 17.- Larrañaga, Iñaki. *Euskal soziolingüistikaren ...*, op. cit., 21. orr.
- 18.- Cobarrubias, Juan. *Normalización y ...*, op. cit., 13. orr.
- 19.- Cobarrubias, Juan, Idem., 16. orr.
- 20.- Fishman, Joshua A. *Hizkuntz hedapena ...*, op. cit., 15. orr.
- 21.- Ikus P. Salabururen *Koldo Mitxelena, hizkuntzalari*, in EGAN 3-6, 1987, 120. orr.
- 22.- Bourdieu, Pierre. *¿Qué significa hablar?, Economía de los intercambios lingüísticos*, Akal, Madrid, 1985. 19. orr.

- 23.- Cobarrubias, Juan. Idem., 19. orr.
- 24.- Siguán, Miguel; Mackey, William F. *Educación y ...*, op. cit. 14. orr.
- 25.- Cobarrubias, Juan G. *La glotopolítica y el euskara*, in "Hizkuntza Minorizatuen ...", op. cit., 192. orr.
- 26.- Poulantzas, Nicos. *Estatu, poder y socialismo*, Siglo XXI, Madrid, 1979, 37. orr.
- 27.- Balibar René, Laporte Dominique. *Burguesía y lengua nacional*, Avance ed., Barcelona, 1974, 122. orr.
- 28.- Macellesi Jean Baptiste, Gardin Bernard. *Introducción a la sociolingüística*, Ed. Gredos, Madrid, 1978, 28. orr.
- 29.- "AITZOL", Ariztimuño, José. *La lucha de idiomas ...*, op. cit., 262. orr.
- 30.- Fishman, Joshua A. *Hizkuntz hedapena ...*, op. cit., 15. orr.
- 31.- Sánchez Carrión, José María "Txepetx". *Fundamentos para ...*, op. cit., 29. orr.
- 32.- Sánchez Carrión, José María "Txepetx", *El estado actual del vascoence en la provincia de Navarra*, Institución Príncipe de Viana, Diputación Foral de Navarra, Pamplona, 1972, 182. orr.
- 33.- Euskaltzaindia, *Conflicto lingüístico en Euskadi*, Ediciones Vascas, Bilbao, 1979, 29. orr.
- 34.- Euskaltzaindia, *Euskararen liburu zuria 1*, Bilbao, 1978, 276. orr.
- 35.- "BELTZA", *El nacionalismo vasco (de 1876 a 1936)*, Ed. Mugalde, Hendaye, 1974, 218. orr.
- 36.- Azurmendi, Joxe. *HABE*, 7. zenbakia, Donostia, 1982.
- 37.- Tovar, Antonio. *Lo que sabemos de la lucha de lenguas en la Península Ibérica*, Ed. Gregorio del Toro, Madrid, 1968, 38. orr.
- 38.- Euskaltzaindia, *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian*, Ed. Vascas, Bilbao, 1979, 191. orr.